Bilbao

BETIKO DENDAK
— BETIRAKO —

100 EHUN BILBAO 100

COMERCIOS DE TODA LA VIDA
— Y PARA TODA LA VIDA —

Bilbao

Bilbao

EHUN BILBAO 100

Bilboko Udalak zenbait familia-belaunaldiren lanari, irmotasunari eta ahaleginari egin nahi dien omenaldia da EHUN, betiko dendak – betirako; izan ere, familia horiek ehun urteko saltokien bitartez Bilboko historia bizirik eusten lagundu digute.

Argitalpenean, establezimendu guzti-guztien historiaren jarraipena aztertzen da, baina, horrez gain, oraindik ere gure artean jarraitzen dutela nabarmendu nahi dugu, bai eta gure gizartearen etorkizunari laguntzeko ondasuna direla ere. Hori guztia protagonisten kontakizun eta irudien bitartez. Eskerrak emateko modu bat da, baina baita gonbidapen bat ere, gure hiribilduan ibilaldi zoragarri eta berezi bat egiteko, balio historikoagatik saltokirik ikonikoenak diren horien bidez egingo den ibilaldia, alegia.

Bilbon, merkataritza beti izan da jarduera ekonomikoa eta enplegua baino zerbait gehiago. Merkataritzak argia, zoriontasuna eta giro ona dakartza kalera eta auzora. Merkataritza da gure hiribildua sortzeko funtsezko oinarrietako bat, eta Bilboren historiaren 722 urteak ezin izango ziren ulertu merkataritza-jarduerarik gabe, ezta ere orain zein lehen gure gizartea lotzen duten milaka negozio txikiren eguneroko lanik gabe, hiria sortu eta aurrerapena ekarri baitigute.

Orrialdeetan jaso ditugun saltoki guzti-guztiak zarete guretzako eredu. Zuen adorea eta berrikuntzarako gaitasuna dira bilbotarren nortasunaren adibiderik onena, belaunalditik belaunaldira egonkortu den izaera solidario, ireki eta begirunetsua.

Bihotz-bihotzez, eskerrik asko

"EHUN, Comercios de toda la vida y para toda la vida" es el homenaje que el Ayuntamiento de Bilbao quiere rendir al trabajo, la constancia y el esfuerzo de varias generaciones de familias que, a través de su comercio centenario, han contribuido a mantener viva la historia de Bilbao.

En esta publicación se hace un repaso a la larga historia de cada establecimiento, pero también se pone en valor su persistencia en el presente y distingue su contribución al futuro de nuestra sociedad. Todo ello a través de imágenes y del relato de sus protagonistas. Se trata de un agradecimiento, en forma de invitación, a un paseo único y singular por nuestra Villa a través de los comercios más icónicos por su valor histórico.

En Bilbao, el comercio ha sido siempre mucho más que actividad económica y empleo. El comercio es luz, alegría, y ambiente de calle y de barrio. El comercio es uno de los pilares fundacionales de nuestra Villa, de hecho, los 722 años de historia de Bilbao serían incomprensibles sin la actividad comercial, sin el trabajo cotidiano de los miles de pequeños negocios que hoy, como ayer, conectan con nuestra sociedad, hacen ciudad y progreso.

Cada uno de los comercios que recogen estas páginas sois un ejemplo a seguir. Vuestro tesón y capacidad de innovación reflejan lo mejor del carácter bilbaino, ese carácter solidario, abierto y respetuoso que se ha forjado a lo largo de generaciones.

Bihotz-bihotzez, eskerrik asko

JUAN MARI ABURTO

Bilboko Alkatea Alcalde de Bilbao

100 EHUN BILBAO 100

100 URTEKO TRADIZIOA, KALITATEA ETA KONFIANTZA.

Ehun urteak beteak dituzten saltokiak Bilboko historia bizia dira. Garenaren historia. Iragana eta oraina modu paregabean bateratzen dira saltoki horietan, ireki zituztenean zuten filosofia eta ilusioa mantentzen baitute oraindik. Belaunaldiz belaunaldi mantendu dute nortasuna eta profesionaltasuna, eta garai berrietara egokitu dira. Seguru beste 100 urtean ere gure artean jarraituko dutela.

100 AÑOS DE TRADICIÓN, CALIDAD Y CONFIANZA.

Los comercios centenarios son historia viva de Bilbao. Historia de lo que somos. El pasado y el presente conviven de manera única en estos establecimientos donde siguen trabajando con la misma filosofía e ilusión que cuando abrieron sus puertas. Generación tras generación han ido manteniendo su personalidad y profesionalidad adaptándose a los nuevos tiempos. Y seguro que seguirán en nuestra ciudad otros 100 años más.

B
Bilbao



100 EHUN BILBAO

ALIMENTACIÓN **LARRINOA** **ANTONIO MARTÍNEZ** CALZADOS **BIZKARGUENAGA** CALZADOS **OTAZUA** CALZADOS **ZULUETA** CAMISERÍA **MUÑOZ** **CASA RUFO** CERRAJERÍA **SOMERA** CESTERÍA **ALONSO** CHARCUTERÍA ALEMANA **HERMANN THATE** CRISTALERÍA **LANDA** CUCHILLERIA **INCHAUSTEGUI** CUCHILLERÍA **LA TIJERA** DELICATESSEN **LÓPEZ OLEAGA** DROGUERÍA-PERFUMERÍA **JUAN TORRE** **EL ARRATIANO** **EL EQUIPO DE VIAJE** ESTANCO **ALIS** ESTANCO **ASPIZUA** **EXPENDEDURÍA 17** ESTANCO DE **BIDEBARRIETA** ESTANCO DE **LA CASILLA** ESTANCO **Nº13** FARMACIA **COLÓN** FARMACIA **DIEGO AGUIRREZABALA** FARMACIA **EGUIRAUN** FARMACIA **PONT** FARMACIA **URIARTE** FARMACIA **VÍCTOR LLORENTE** FARMACIA **ZABALLA** FERRETERÍA **LA BOLSA** FLORISTERÍA **REMENTERIA** **GUANTE VARADÉ** HELADERÍA **NOSSI-BÉ** JOYERÍA **FERNANDO MONGE 1891** JOYERÍA **IGNACIO ÁLVAREZ** JOYERÍA RELOJERÍA **MANOLO** JOYERÍA **URALDE** **LA BELGA** LIBRERÍA **CÁMARA** **LOS ENCAJEROS** LOTERÍA **AZCARRETA** LOTERÍA **CARRERA** LOTERÍA **LA CRUZ** MÁQUINAS DE COSER **ALFA BILBAO** **MELTXORA** PASTELERÍA **ARRESE 1852** **GOZOTEGIA** PASTELERÍAS **MARTINA DE ZURICALDAY** **BILBAO** **PEDRO SALCEDO** PESCADERÍA **MARISA** PESCADERÍAS **VASCAS** PLANTAS, SEMILLAS Y FLORES **MIKEL ZUAZUA** SASTRERÍA **CARDENAL** SOMBREROS **GOROSTIAGA** TEJIDOS **EL PARAÍSO** TURRONERÍA HELADERÍA **ADELIA IVÁÑEZ** TURRONERÍA **IVAÑEZ** ULTRAMARINOS **GALINDEZ** ULTRAMARINOS **GREGORIO MARTÍN** **ZUBIRI**

Bilbao

ABANDO

1/ CASA **RUFO** 2/ CHARCUTERÍA ALEMANA **HERMANN THATE** 3/ CRISTALERÍA **LANDA** 4/ CUCHILLERIA **INCHAUSTEGUI** 5/ DELICATESSEN **LÓPEZ OLEAGA** 6/ **EL ARRATIANO** 7/ ESTANCO **ALIS** 8/ FARMACIA **COLÓN** 9/ FARMACIA **DIEGO AGUIRREZABALA** 10/ FARMACIA **EGUIRAUN** 11/ FARMACIA **VÍCTOR LLORENTE** 12/ FARMACIA **ZABALLA** 13/ FERRETERÍA **LA BOLSA** 14/ GUANTE **VARADÉ** 15/ HELADERÍA **NOSSI-BÉ** 16/ LIBRERÍA **CÁMARA** 17/ LOTERÍA **CARRERA** 18/ MÁQUINAS DE COSER **ALFA BILBAO** 19/ PASTELERÍA **ARRESE 1852** GOZOTEGIA 20/ PASTELERÍAS **MARTINA DE ZURICALDAY BILBAO** 21/ PESCADERÍAS **VASCAS** 22/ **ZUBIRI** 23/ CALZADOS **OTAZUA** 24/ JOYERÍA **FERNANDO MONGE 1891** 25/ JOYERÍA **IGNACIO ALVAREZ** 26/ **LOS ENCAJEROS** 27/ SASTRERÍA **CARDENAL**

100 EHUN BILBAO

BETIKO DENDAK BETIRAKO
COMERCIOS DE TODA LA VIDA Y PARA TODA LA VIDA

CASA RUFO

– 1920 –

20 urte baino gehiago igaro dira Jose Luis Pérez Landetak jatetxe eta dendaren kontzeptua ezagutu zuenetik Iberiar penintsulako hegoaldera egin zuen bidaia batean; orduan, ideia hori Bilbon zuen saltokian aplikatzea erabaki zuen. Casa Rufo izeneko janari-denda bat zuen orduan, haren aitarena —Rufo— izandakoa. Garai bateko janari-denda Hurtado de Amezaga kalean zegoen; han aritzen ziren aita-semeak, baina egungo helbidera aldatu behar izan zuten, kale bereko 5. zenbakira, Banco de Vizcayaren eraikina eraitsi zutenean.
Bezero ugari joaten da Casa Rufora, nazioartean ospetsuak diren pertsonak barne, hango txuleta urtsua edo semeak egiten duen Keia izokina dastatzera. Eskaintzen dituen goi-mailako kalitateko produktuak direla eta (haragiak, perretxikoak eta tokiko barazki freskoak nabarmentzen dira), euskal sukaldaritza tradizionaleko erreferente bat da Casa Rufo Botxoan. Gainera, ardandegi handi bat dute, hainbat jatorri-deituratako eta hainbat herrialdetako ardoz eta brandy onenen bilduma batez hornitua.

Hurtado de Amezaga Kalea, 5
Tel. 944 432 172
casarufobilbao@yahoo.es
casarufo.com

Hace más de 20 años Jose Luis Pérez Landeta conoció el concepto de restaurante y tienda en un viaje al sur de la península y decidió aplicar esa idea en su comercio de Bilbao. Por aquel entonces, contaba con una tienda de comestibles llamada Casa Rufo, la cual perteneció a su padre Rufo. La antigua tienda de ultramarinos, en la que trabajaban su padre y él, se encontraba en la calle Hurtado de Amezaga y se trasladó a la dirección actual, en el número 5 de la misma calle, debido a la demolición del Banco de Vizcaya.
Por Casa Rufo han pasado personalidades muy conocidas a nivel internacional y mucha clientela buscando su jugosa chuleta o el aclamado salmón Keia que elabora su hijo. Sus productos de primera calidad, entre los que destacan las carnes, setas y verduras frescas y locales, hacen de Casa Rufo un referente de la cocina vasca tradicional en la Villa. Además, cuenta con una amplia bodega, donde se pueden encontrar vinos de distintas denominaciones de origen y países, así como una excelente colección de los mejores brandis.

CHARCUTERÍA ALEMANA HERMANN THATE

– 1932 –

Hermann Thatek La Moderna izeneko Bilboko lehenengo alemaniar urdaitegia sortu zuen Hurtado de Amezaga kalean. 1932an Astarloa kalera aldatu zuten saltokia, eta gaur egun Colon de Larreategui kaleko 25.ean eta Urkixo zumarkaleko 42.ean daude. Familia-negozioko laugarren belaunaldiko lau anaiak kudeatzen dituzte bi dendak.
100 urte daramatzate bilbotarrei Alemaniako jatorrizko zaporea eskainiz; klasiko bat da, zalantzarik gabe. Urdaitegi honetako produktuak Bilbon egin izan dira beti. Goizean goiz prestatzen dira, eta zuzenean ontziratzen dituzte. Eskaintzen dituzten saltxitxa-mota guztien artean, coctel izenekoak dira ezagunenak: txikiak, zuriak eta % 100 txerrikiz eginak. Beren webgunea dute, eta online ere saltzen dute.
Gainera, 1999tik alemaniar jatetxe tipiko bat ere badute, Ein Prosit Bilbao, Zabalgune plazako 7. zenbakian.

Colon de Larreategui Kalea, 25
Tel. 944 234 878
etprosit@gmail.com
hermannthate.com

Hermann Thate fundó su primera charcutería alemana de Bilbao llamada La Moderna, en la calle Hurtado de Amezaga. En 1932 se trasladaron a la calle Astarloa y, hoy, se encuentran en la calle Colón de Larreategui, 25 y en Alameda Urquijo, 42. Ambas tiendas están gestionadas por cuatro hermanos pertenecientes a la cuarta generación del negocio familiar.
Son 100 años los que llevan trayendo al paladar de bilbainas y bilbainos el sabor auténtico alemán, convirtiéndose en todo un clásico. Sus productos siempre han sido realizados en Bilbao. Se elaboran a primera hora de la mañana y se envasan directamente. Entre la variedad de salchichas disponibles, el producto estrella son las conocidas como cóctel: pequeñas, blancas y elaboradas con 100% carne de cerdo. Tienen su propia página web donde venden online.
Además, desde 1999, cuentan con un restaurante típico alemán llamado Ein Prosit Bilbao, en la Plaza del Ensanche, 7.

Beste kokapen batzuk // Otras ubicaciones: Alameda Urquijo, 42

CRISTALERÍA LANDA

– 1909 –

Landa beirategia Banco España kalean zegoen hasiera batean, Zazpikaleetan, 1983ko uholdeek lokala suntsitu zuten arte. 1909an bigarren establezimendu bat ireki zuten, Mazarredo zumarkalean. Hain zuzen, establezimendu horrek iraun du gaur egun arte, eta laugarren belaunaldiko bi anaiak kudeatzen dute.
Erabaki bizkorrak hartzea, beirate beruneztatuak, konponketak eta zaharberritzeak ditu bereizgarri. Artisau-eran eta modu klasikoan egiten dute lan; jada ez da erraza lehiakideen artean ezaugarri horiek aurkitzea. Beharrezkoa den tokian eskaintzen dituzte zerbitzuak, eta kristal bereziak edo koloreztatuak behar dituzten enkargu eta lanetarako, inportatu egiten dituzte, edota tailerrean bertan landu. Moldurak, markoak eta ateak ere jartzen dituzte, eta bezeroaren gustuen arabera pertsonaliza ditzakete, bezeroek nahi badute.

Mazarredo Zumarkalea, 8
Tel. 944 236 239
cristalerialanda@outlook.com



Cristalería Landa se ubicaba en sus comienzos en la calle Banco de España, en pleno Casco Viejo de Bilbao, hasta que las inundaciones de 1983 destruyeron el local. En 1909 abrieron un segundo establecimiento en Alameda Mazarredo. Este último es el que se mantiene hoy en día y está gestionado por dos hermanos que forman parte de la cuarta generación.
Se diferencia por su rapidez en la toma de decisiones, por sus vidrieras emplomadas, sus arreglos y sus restauraciones. Conservan una forma de trabajar artesanal y clásica, difícil de encontrar en la competencia. Ofrecen sus servicios allí donde los necesiten y para los pedidos o trabajos que requieren de un cristal especial o coloreado, lo importan o incluso, lo trabajan en el propio taller. También se encargan de molduras, marcos y puertas, con opción de personalización al gusto del cliente.

CUCHILLERÍA INCHAUSTEGUI

– 1922 –

Inchaustegui aizto-dendak 100 urte bete ditu, 1922an sortu baitzen, Berastegui kalean. 2015ean, Astarloa kalera aldatu zuten saltokia, Zabalgune plazaren ondora; eta elementu tipiko batzuk mantendu zituzten, hala nola armarria edo logotipoa.
Sukaldeko aiztoak, aliketak eta ilea mozteko makinak dira saltoki honetako espezialitatea. Japoniar aiztoak eta atzazalak mozteko aliketak dira haien produktu ezagunenetako batzuk. Guraize, zorrozteko tresna, aihotz, ezpata eta katana onenak dituzte. Bildumagileentzako produktuak dituzte; besteak beste, Toledoko ezpatak, bai Erdi Aroko heroienak bezalakoak, bai ezpata handien erreprodukzioak. Inchaustequi aizto-dendak webgunearen bidez ere saltzen ditu produktuak.

Astarloa Kalea, 2
Tel. 944 238 741
tienda@cuchilleriainchaustegui.com
www.cuchilleriainchaustegui.com



Cuchillería Inchaustegui ha cumplido 100 años desde que en 1922 comenzase su andadura en la calle Berastegui. En 2015, trasladaron el comercio a la calle Astarloa, al lado de la Plaza Ensanche, guardando elementos típicos como la armadura o el logotipo.
Están especializados en cuchillos de cocina, alicates y máquinas de cortar el pelo. Entre los productos más populares de su catálogo se encuentran los cuchillos japoneses o los alicates cortauñas. Cuentan con las mejores tijeras, herramientas de afilado, machetes, espadas o katanas. Tienen productos de coleccionista como las espadas de Toledo, tanto las clásicas de los héroes medievales como las reproducciones de espadas grandes. Cuchillería Inchaustequi ofrece sus productos a través de su propia página web.

DELICATESSEN LÓPEZ OLEAGA

– 1904 –

Delicatessen López Oleaga saltokiak 117 urte daramatza irekita, eta laugarren belaunaldiak kudeatzen du jada. Denetarik saltzen zuten hasieran, hasi janarietatik eta etxeko zapatiletara. 1936ko Gerra Zibilaren aurretik, kafea txigortzen zuten dendan. Gerraostean, produktu-eskasia zela-eta, kakahueteak txigortzeko erabili zuten txigorgailua. Ordudanik, hainbat bilbotar-belaunaldirentzat da ezaguna saltoki hau egunero txigortzen dituzten kakahueteei esker.

Gaur egun, ardo eta likoreetan espezializatuta daude, eta adituak dira haietako askotan. Pertsonalki laguntzen diete gourmet produktuen eta bertako produktuen bila etortzen diren bezeroei.

Kokapen pribilegiatu batean dago, hirigunean bertan. Nahitaez bisitatu beharreko saltokia da Euskal Herriko produktu tipikoen bila (adibidez, txakolinaren eta gaztaren bila) datozen turistentzat, eta saltokiaren arkitekturaz eta dekorazioaz gozatu nahi dutenentzat.

Astarloa Kalea, 3
Tel. 944 230 333
lopezoleaga@lopezoleaga.com
delicatessenlopezoleaga.es

Delicatessen López Oleaga lleva 117 años en activo llegando hasta la cuarta generación. Empezó como una tienda de ultramarinos en la que se podían encontrar desde productos alimentarios hasta zapatillas de hogar. Antes de la Guerra Civil de 1936, se tostaba café en la tienda y en la posguerra, ante la escasez de productos, reutilizaron el tostador para tostar cacahuetes. Desde entonces, este negocio es conocido por múltiples generaciones de bilbainos y bilbainas por sus cacahuetes que tuestan a diario.

Actualmente, también están especializados en vinos y licores, siendo expertos en una gran variedad de ellos. Aconsejan personalmente a la clientela que entra en busca de productos gourmet y productos locales de alta calidad.

Su ubicación es privilegiada, ya que se encuentra en una zona céntrica de la Villa. Es una parada obligatoria para el turista que busca productos típicos vascos como el txakoli y el queso, así como para disfrutar de su arquitectura y su decoración.



EL ARRATIANO

– 1925 –

Colon de Larreategui kaleko 27.ean, Zabalgune plazan, Andrés Ortiz Ocerin jaunak Ultramarinos Ortiz ireki zuen 1925ean. Duela sei urte El Arratiano izena jarri zioten, egungo jabeen aitita eta Ultramarinos Ortiz saltokiaren sortzaile izan zenaren ohoretan, arratiarra baitzen.
Gaur egun, saltokiak bi eremu ditu. Alde batetik, elikagaien eremua, non latak, lekaleak, kontserbak eta hemengo produktuak aurkituko baititugu; adibidez, Lezamako eta Arrietako tomateak eta Nafarroako zainzuriak, Fiterokoak. Beste aldean, Gasteizko Goya gozotegi ezaguneko produktuak daude, Bilbon beste inon ezin direnak erosi.
El Arratiano saltokiaren fatxadak 1850ean zuen itxura mantentzen du. Berriztapen-lanak egin dira, baina garai hartako xehetasunek lokalean diraute.

Colon de Larreategui Kalea, 27
Tel. 944 741 062
tiendas@elarratiano.es
www.elarratiano.com

En la calle Colón de Larreategui, 27, en pleno Ensanche, D. Andrés Ortiz Ocerin abrió en 1925 Ultramarinos Ortiz. Desde hace seis años su nombre es El Arratiano, en honor al aitite de los actuales propietarios y fundador de Ultramarinos Ortiz, procedente del Valle Arratia.
Actualmente, el comercio está dividido en dos zonas. Por un lado, la zona de alimentación, donde se pueden encontrar desde productos como latas, legumbres y conservas, hasta productos del país, como tomate de la huerta de Lezama y Arrieta, y espárragos de Navarra, de Fitero. Al otro lado, los productos de la famosa Pastelería Goya de Vitoria-Gasteiz, el único local de la Villa donde se pueden encontrar sus productos.
La fachada de El Arratiano sigue manteniendo el mismo diseño que tenía en 1850. Aunque se han llevado a cabo renovaciones y obras, los detalles de la época siguen presentes en el local.

ESTANCO ALIS

– 1930 –

Alis estankoa Astarloa kalean dago duela 90 urte baino gehiagotik. Kubatik inportatutako eta kontu handiz hautatutako zigarro puru habanoetan espezializatuta dago. Puru bakoitzak zaintzeko eta kontserbatzeko modu berezia du, egoera onenean dastatu ahal izateko. Zigarro puru habanoek aroma berezi bat dute, baina "puru bakoitza mundu bat da". Hori esaten du beti Mari Felik, estankoaren jabeak.
Alis estankoan kalitate handiko produktu ugari saltzen dituzte: pipa-tabakoa ere badute, baina saltokia etengabe egokitzen da egungo kontsumo-joeretara. Bilboko tabako-boutiquea da, erreferentziazko tokia sektorean. Arreta pertsonalizatuagatik eta tratu onagatik nabarmentzen da.

On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia, 24
(Astarloa Kalea)
Tel. 944 245 339
estancoalis@hotmail.com
www.estancoalis.com



En plena calle Astarloa, desde hace más de 90 años, se encuentra el Estanco Alis. Está especializado en puros habanos importados de Cuba y seleccionados con mucho mimo. Cada puro cuenta con un cuidado y una conservación especial para que puedan ser disfrutados al máximo. Los habanos se caracterizan por su especial aroma, pero hay que destacar que "cada puro es un mundo". Así lo asegura siempre Mari Feli, la propietaria del estanco.
Estanco Alis es un establecimiento con una gran variedad de productos de excelente calidad y aunque es un lugar donde se puede encontrar hasta tabaco de pipa, se adapta constantemente a las tendencias actuales de consumo. Es la boutique del tabaco en Bilbao, un lugar de referencia en el sector que destaca por la atención personalizada y el buen trato.

FARMACIA COLÓN

– 1932 –

Colón botika Bilboko erdigunean dago. Fatxada arrazionalista berezi bat du, 30eko hamarkadaren hasierakoa, eta barruan farmaziaren museo bat dago, doakoa, kalearen mailan.
Botika Asunción Peña andreak, egungo titularraren birramamak, erosi zuen garai batean, farmazia- eta drogeria-jarduerarekin hasteko. Familiako laugarren belaunaldiaren esku dago negozioa gaur egun.
Drogerian, altzariak garbitzeko produktua nabarmentzen da, birramamak Gerra Zibilaren aurretik sortua. Botikan, aurpegiko krema da produktu izarra, botikako formulazio-liburu zaharretan aurkitutako printzipio aktiboetan oinarritua. Botika joera berrietara egokitu da, arreta eta kalitate onenak eskaintzen jarraitu ahal izateko.

Colon de Larreategui Kalea, 41
Tel. 688 988 636
pharmakotegia@gmail.com
www.bilbotika.com

En el centro de Bilbao, se ubica la Farmacia Colón, con una singular fachada racionalista de principios de los años 30 y que, actualmente, alberga en su interior un museo de la farmacia, gratuito y a pie de calle.
Esta farmacia fue adquirida antiguamente por Doña Asunción Peña, la bisabuela del actual titular, para iniciar la actividad de Farmacia y Droguería. Ahora, está en manos de la cuarta generación de la familia.
En la droguería destaca su producto limpiamuebles, fórmula de antes de la Guerra Civil, ideada por la bisabuela. En la farmacia, como producto estrella hay que resaltar su crema facial, basada en los principales activos encontrados en los antiguos libros de formulación de la botica. La farmacia se ha adaptado a las nuevas tendencias, para continuar ofreciendo la mejor atención y calidad.

FARMACIA DIEGO AGUIRREZABALA

– 1891 –

Miguel Ignacio Aguirrezabala Pagola eta Jorge Aguirrezabala Pagola lehengusuek sortu zuten Aguirrezabala botika 1891n. Hasiera-hasieratik egon da Colon de Larreategui kalean; garai hartan J letra zen, eta, gaur egun, 29. zenbakia.

Lau belaunaldik kudeatu dute botika, eta bi pandemia eta sute bat gainditu dituzte; sutearen ostean, lokala berriztatu zuten, 50eko hamarkadan. Bizkaiko Farmazialarien Elkargoak Jorge Aguirrezabalari 50 urteko jardute profesionalagatik eman zion lehenengo diploma dute erakusgai botikan.

Aguirrezabalatarren armarria, txuri-gorria, Ignacio Aguirrezabala, Chirri II.a, Athletic Clubeko jokalariak diseinatu zuen. Bilboko Ingeniaritza Eskolan sartzeko notak jakiteko zain zegoen artean sortu zuen.

Beti izan dira famatuak botikako formula magistralak, establezimenduko laborategian bertan prestatzen zituztenak. Gaur egun, beste botika batzuetarako egiten dituzte formula magistralak.

Colon de Larreategui Kalea, 29
Tel. 944 230 065
fdaguirrezabala@gmail.com

Farmacia Aguirrezabala fue fundada en 1891 por Miguel Ignacio Aguirrezabala Pagola y su primo Jorge Aguirrezabala Pagola. Desde sus comienzos, estuvo ubicada en Colón de Larreategui, en lo que por entonces era la letra J y hoy es el número 29.

Cuatro generaciones se han hecho cargo de ella, pasando por dos pandemias y un incendio, tras el que se renovó el local en los años 50. Allí tienen el primer diploma que el Colegio Farmacéutico de Bizkaia entregó a Jorge Aguirrezabala por sus 50 años de ejercicio profesional.

El escudo de los Aguirrezabala, en colores rojo y blanco, fue diseñado por Ignacio Aguirrezabala, más conocido como Chirri II, jugador del Athletic Club. Lo creó mientras esperaba conocer la calificación para su ingreso en la Escuela de Ingenieros Superiores de Bilbao.

Siempre han destacado por sus fórmulas magistrales que llevaban a cabo en el laboratorio del propio establecimiento. Actualmente, elaboran fórmulas magistrales para otras farmacias.

FARMACIA EGUIRAUN

– 1899 –

Eguiraun botika irekita egoten da urteko 365 egunetan. Botikako dekorazioari esker, mende oso bateko esentzia sumatzen da botikan gaudenean. Sortzaileak, Eguiraun doktoreak, medikamentuak gordetzen zituen ontziak eta mostradorearen atzeko portaleak negozioa sortu zen garaia ekartzen diete gogora bezeroei.
Eguiraun doktorearen —hala esaten zioten auzoan— María eta Juan ilobek diotenez, ondare on bat utzi zien aititak bere ondorengoei. Modernitatea eta tradizioa nahasten dira establezimendu honetan. Eguiraun botikak medikamentuen bilakaerari jarraitu dio, eta teknologia berriak sartu ditu, baina botikaren jatorrira ere itzuli da, hau da, landareetara. Establezimendua garai berrietara egokitu da, eta tratu paregabea, bereizgarria eta gertukoa eskaintzen die paziente guztiei.

Hurtado de Amezaga Kalea, 10
Tel. 944 155 716 / 944 156 259
farmaciaeguiraun@hotmail.com

La Farmacia Eguiraun permanece abierta los 365 días del año. En su interior se siente la esencia farmacéutica de todo un siglo gracias a su decoración. Los tarros donde el fundador, el Doctor Eguiraun, guardaba la medicación o el portalón de detrás del mostrador, consiguen transportar a la clientela a los orígenes de este negocio.
Como cuentan sus nietos, María y Juan, el Doctor Eguiraun, que así le llamaban en el barrio, deja a las generaciones posteriores un buen legado. Este establecimiento es un lugar donde se mezcla lo moderno y lo tradicional. A pesar de estar en continua evolución con los medicamentos e incorporar nuevas tecnologías, Farmacia Eguiraun también vuelve al origen de la farmacia, es decir, a las plantas. Se trata de un establecimiento que ha ido adaptándose a los nuevos tiempos, manteniendo en todo momento un trato único, diferenciado y cercano a cada paciente.

FARMACIA VÍCTOR LLORENTE

– 1905 –

Pedro Eguillor plazan —hiriaren erdi-erdian— dago Víctor Llorente Lacha botika. Gaur egun, Víctor Llorentek gobernatzen du. Familiako farmazialarien hirugarren belaunaldia da bera. Establezimenduan tradizioa da nagusi, ehun urtetik gorako erakusmahaiarekin, eta beira-arasan duela mende bat Víctorren aitonak botikak prestatzeko erabiltzen zituen tresnak erakusgai daudela. Hori guztia egungo produktuekin batera dago. Farmaziako eta parafarmaziako produktuak eskaintzen dituzte, betiere tratu pertsonalizatuarekin.
Ehun urteren ondoren, botikak toki berean jarraitzen du, baina ingurua aldatu egin da. Bilbo industrialetik egungo Bilbo modernoa izatera igaro da. Ehun urteko botika hau, ikuspegi berritzailearekin eta familiaren ondarea oinarria izanik, egungo joeretara egokitu da.

Pedro Eguillor Plaza, 2
Tel. 944 795 910
farmaciadrllorente@hotmail.com
wegofarma.com

En la Plaza Pedro Eguillor, una de las más céntricas de Bilbao, está la Farmacia Víctor Llorente Lacha, regida actualmente por Víctor Llorente, tercera generación de farmacéuticos de la familia. El establecimiento respira tradición con su mostrador centenario y antiguos instrumentos con los que hace un siglo el abuelo de Víctor preparaba las medicinas en las vitrinas. Todo ello combina con los productos actuales, tanto de farmacia como parafarmacia, ofrecidos siempre con un trato personalizado.
Después de un centenar de años, la farmacia se mantiene en la misma ubicación, pero en un entorno cambiado. De un Bilbao industrial al Bilbao moderno de la actualidad. Con una visión innovadora y con el legado familiar al frente, esta botica centenaria se adapta a las tendencias actuales.

FARMACIA ZABALLA

– 1900 –

Zaballa familiako hiru belaunaldik gobernatu dute Bilboko On Diego Lopez Haro Kale Nagusiko botika hau. Gaur egun, Jon Andonik zuzentzen du. Lucio aitonak beste toki batean ireki zuen botika, baina, handik urte batzuetara, Franciscok, Jon Andoniren aitak, negozioa On Diego Lopez Haro Kale Nagusira aldatzea erabaki zuen, garai hartako herritarrei soluzioak eskaintzen jarraitzeko.
Milioi bat historia ezagutu dituen botika txiki honek duela ehun urte baino gehiago zuen sabaia eta medikamentuak egiteko erabiltzen ziren albareloak mantentzen ditu oraindik.
Gaur egun, produktu dermatologikoez eta parafarmaziako produktuez gainera, landareetatik eratorritako produktuen salmentan zentratzen dira, egungo gizartearen eskaeretako bat baita. Bitxikeria bat: botika Casilda Iturrizar parkearen ondoan dagoenez, sendaketak egiten dizkiete inguruan jolasten ari direla min hartzen duten haurrei.

On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia, 56
Tel. 944 424 177
farmaciazaballa@hotmail.es

Tres son las generaciones de farmacéuticos de la familia Zaballa que han regentado esta farmacia situada en plena Gran Vía de Bilbao. Actualmente, está dirigida por Jon Andoni. Su abuelo Lucio abrió la farmacia en una ubicación distinta, pero unos años después, Francisco, el padre de Jon Andoni, decidió trasladarse a la céntrica calle bilbaina para seguir ofreciendo soluciones a la ciudadanía de la época.
Después de millones de historias, esta pequeña farmacia sigue conservando el mismo techo y los mismos albarelos con los que se realizaban los medicamentos hace más de cien años.
Actualmente, además de productos dermatológicos y de parafarmacia, se centran en la venta de productos provenientes de plantas, para adaptarse así a las tendencias que demanda la sociedad actual. Como dato curioso, al estar ubicada junto al Parque de Doña Casilda de Iturrizar, realizan curas a los niños y a las niñas que juegan en la zona.



FERRETERÍA LA BOLSA

– 1860 –

La Bolsa burdindegia 1860 ingurukoa da. Zazpikaleen erdi-erdian zegoen, La Bolsa eraikina izenaz ezaguna zen Yohn jauregian, gaur egun Bilboko Zazpikaleetako Auzo Etxea dagoen horretan. Eraikina Yohn familiarena zen, eta familiaren bizitokia eta saltokia izan zen urte askoan. Han eduki zuten negozioa 1983 arte, baina urte horretako uholdeek erabat suntsitu zuen, eta negozioa Astarloa kalera eramatea erabaki zuten.
Gaur egun, Colon de Larreategui kalean dago, Zabalgunean. Negozioan egin duten ibilbide luzeak sektoreari eta generoari buruzko ezagutza handia ekarri die. Askotariko produktuak eskaintzen dituzte, hala nola mota guztietako hornigaiak, sukaldeko tresnak, baxerak, kazolak eta zartaginak. Etxerako produktuei dagokienez, kalitate/prezio erlazio onena dute. Betiko bezeroek konfiantza osoa jartzen dute negozio honetan, eta bertako saltzaileen aholkuak hartzen dituzte.

Colon de Larreátegui Kalea, 14
Tel. 944 242 878
rosario@fenesa.es

Ferretería La Bolsa data alrededor de 1860. Estaba ubicada en el corazón del Casco Viejo, en el Palacio Yohn, popularmente conocido como Edificio La Bolsa, actualmente Centro Cívico del Casco Viejo bilbaino. El edificio pertenecía a la familia Yohn y fue durante una larga época su domicilio y comercio familiar. El negocio estuvo situado ahí hasta 1983, pero con las inundaciones de ese mismo año, quedó destrozado y decidieron reubicar el negocio en la calle Astarloa.
Actualmente, se encuentra en la calle Colón de Larreategui, en pleno Ensanche. Su larga trayectoria en el negocio les ha reportado un gran conocimiento del sector y del género, ofreciendo una amplia variedad de productos. Se pueden encontrar todo tipo de menajes, utensilios de cocina, vajillas, cazuelas y sartenes. Los productos tienen la mejor relación calidad-precio en útiles para el hogar. La clientela de toda la vida deposita en este negocio su confianza para recibir asesoramiento.

GUANTE VARADÉ

– 1902 –

100 urtetik gorako historia du Guante Varadék, Parisen sortutako saltokiak. Urte batzuk geroago, familia-enpresak Madrilen ireki zuen bere lehenengo eskularru-fabrika, eta 1902tik aurrera, dendak irekitzen jarraitu zuen: Gerra Zibilaren ostean hamabost saltoki izatera iritsi ziren. Bilboko lehenengo denda Diputazio kalearen parean jarri zuten, eta, 1910etik, On Diego Lopez Haroko kale nagusian dago.
Eskularru-neurrien esklusibotasuna da saltoki honen bereizgarria, eskularru oso txikietan eta oso handietan espezializatzen baita. Larruzko eskularruak dira saltokiko oinarrizko produktuak, eta kalitate oneko produktuen bila joaten dira bezeroak hara. Gaur egun, Varadé familiako laugarren belaunaldiak kudeatzen du negozioa, eta galtzerdi luze, galtzerdi motz, xal, fular, kapela eta udarako bainujantziak ere saltzen dituzte.

On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia, 39
Tel. 944 151 263
contact@varade.com
www.varade.com

Con más de 100 años de historia, Guante Varadé inició su andadura en París. Unos años más tarde, puso en marcha su primera fábrica de guantes en Madrid y desde 1902, la empresa familiar fue abriendo tiendas llegando a alcanzar las quince sucursales tras la Guerra Civil. En sus primeros años en Bilbao su localización era a la altura de la calle Diputación, y desde 1910 se encuentra en Gran Vía de Don Diego López de Haro.
La exclusividad de las tallas de guantes marca la diferencia en este comercio, enfocándose tanto en muy pequeñas como en muy grandes. El guante de piel es su producto base y mucha clientela acude a la tienda buscando su producto de calidad. Actualmente, es la cuarta generación de la familia Varadé la que sigue al frente del negocio y su actividad se ha extendido a la creación y venta de medias, calcetines, chales, fulares, sombreros y ropa de baño para verano.

Beste kokapen batzuk // Otras ubicaciones: Serrano, 54, Madrid // Real, 28, A Coruña // Héroes de Alcantara, 1, Valladolid // Alameda Boulevard, 16, Donostia // Doctor Antonio Valcarreres, 2, Zaragoza // Ataúlfo Argenta, 8, Santander // Parque San Lázaro, 9 32003, Ourense // Isilla, 13, Aranda de Duero

HELADERÍA NOSSI-BÉ

– 1913 –

Nossi-Bé izozki-denda 1913n hasi zen bilbotarrei bere izozki gozoak eskaintzen. Hasieran, kafe-txigortegia eta artisau-gozotegia zen (pastelak eta bonboiak egiten zituzten). Gaur egun, 150 izozki-zaporetik gora eskaintzen dituzte; zaporeak aldatzen dituzte, denboraldiaren arabera. Izozki-zapore bereizgarriak dituzte, hala nola Idiazabalgo gazta intxaurrekin eta irasagarrarekin, kalimotxoa edo gurinezko opila. Lokalean bertan prestatzen dituzte produktu guztiak, kalitate goreneko lehengaiak erabiliz: Tanzaniako eta Madagaskarreko kakaoa, Irango pistatxoak, Xixonako turroia, Madagaskarreko bourbon banilla-adarrak eta Bilboko gozotegi ezagun bateko gurinezko opilak, Bilboko opil famatu horiekin izozki gozo bat egiten baitute.
Madagaskarreko iparraldean dagoen Nosy Be uharte txikiak eman dio izena saltokiari; hain zuzen, handik ekartzen dituzte bourbon banilla-adarrak eta kalitate goreneko kakaoa.
Hiriguneko La Bilbaina eraikin esklusiboan dago lokala, eta jatorrizko art-decó estiloa mantentzen du orain-dik. Nossi-Bén, izozkiak ez ezik, kafeak, txokolateak, irabiakiak, izotz-edariak, hortxatak ere gofreak ere saltzen dituzte.

Nafarroa Kalea, 1
Tel. 944 233 489
albahacasalvia@gmail.com
heladeria-bilbao.com



Desde 1913 la Heladería Nossi-Bé lleva deleitando a la ciudadanía de Bilbao con sus deliciosos helados. En sus inicios fue un tostadero de café, pastelería artesanal y bombonería. En la actualidad elaboran más de 150 sabores que van rotando según la temporada. Ofrecen helados tan característicos como el queso Idiazabal con nueces y membrillo, el Kalimotxo o el Bollo de Mantequilla. Todos sus productos son elaborados en el mismo local utilizando materias primas de alta calidad, cacaos de Tanzania y Madagascar, pistachos iraníes, turrón de Jijona, ramas de vainilla bourbon de Madagascar así como bollos de mantequilla de una conocida pastelería de Bilbao, con los que elabora un helado de este rico dulce bilbaino.
Su peculiar nombre viene de una pequeña isla al norte de Madagascar llamada Nosy Be, desde la que llegan las ramas de vainilla bourbon y cacao de primera calidad.
El local se sitúa en el céntrico y exclusivo edificio de La Bilbaina y aún mantiene el estilo art-decó de sus orígenes. Además de helados, en Nossi-Bé ofrecen productos como cafés, chocolates, batidos, granizados, horchatas o gofres.

LIBRERÍA CÁMARA

– 1921 –

Cámara liburu-dendakoek gustuko dute pentsatzea erreferente kulturala direla: liburu-denda tradizional bat da (gutxi geratzen dira jada), eta apaletan jartzen duten liburuetako bakoitza kontu handiz, independentziaz eta maitasunez hautatzen dute.
Argitaletxe independenteen eta literatura probokatzaileenaren alde egiten dute, betiere beren bezeroen eta liburuak atsegin dituztenen gustuak gogoan izanda.
Beren lanbidea birpentsatzeko, kolaborazioak bilatzeko eta literatura eta kultura sustatzeko ahalegina egiten dute egunero.

Euskalduna Kalea, 6
Tel. 944 221 945
pedidos@libreriacamara.com
www.libreriacamara.com

En Librería Cámara les gusta pensar que son un referente cultural, una librería tradicional de las que ya no abundan, una librería que sigue seleccionando con cuidado, independencia y mimo cada uno de los libros que ocupan sus estanterías.
Apuestan por las editoriales independientes y la literatura más provocadora, teniendo siempre en la mente el gusto de sus clientes y los amantes de las letras.
A diario hacen un esfuerzo por repensar su oficio, por buscar colaboraciones y por promocionar la literatura y la cultura.

LOTERÍA CARRERA

– 1909 –

Abando geltokitik gertu-gertu dago loteria-administrazio hau, hiribilduko lehenengoetariko bat. 1909ko urtarrilaren 16an, Alfredo Carrera administrazioaren titularra zen. Garai hartan, administrazioa Hurtado de Amezaga kaleko 2.ean zegoen, BBVAren ondoan. Lokala oso handia zen, eta papertegia eta inprenta atala eta loteria atala zituen. Geroago, 1957an, Alfredoren semeak egungo kokapenera aldatzea (Hurtado de Amezaga, 8) eta loteria-salmentara mugatzea erabaki zuen.

Carrera familiako hirugarren belaunaldia eta administrazioaren egungo titularra da Rosa María, eta gogoan du nola joaten zen txikitan lokalera, ebakigarriekin jolastera eta liburu-dendako liburuak gogo biziz irakurtzera. Garai hartan, bilbotarrak itxaropentsu joaten ziren zenbaki saridunak administrazioaren kanpoaldeko oholetan begiratzera. Gaur egun, ehun urtetik gorako historiarekin eta ia ehun sari banatu ondoren, bere aitonak negozioa hasi zueneko ilusioa mantentzen du.

Hurtado de Amezaga Kalea, 8
Tel. 944 152 689
loteriacarrera15@hotmail.com
https://administraciondeloterian15.negocio.site

A pocos pasos de la estación del Norte, se sitúa una de las primeras administraciones de la Villa. Alfredo Carrera era titular de la administración el 16 de enero de 1909, en Hurtado de Amézaga 2, contiguo al BBVA. Por aquel entonces, el local era tan grande que se dividía en papelería e imprenta y lotería. Más tarde, en 1957, el hijo de Alfredo decidió mudarse a la actual ubicación, calle Hurtado de Amezaga 8, y dedicarse únicamente a la venta de lotería.

Rosa María, la tercera generación de la familia Carrera y actual titular de la administración, donde lleva trabajando desde los 20 años, recuerda cómo de pequeña se acercaba al local para jugar con los recortables y devorar los libros de la librería. En esos años, los bilbainos y bilbainas acudían, con esperanza, a comprobar los premios en los tablones colgados fuera, a las puertas de la administración. Actualmente, con más de cien años de historia y casi cien premios repartidos, mantiene la misma ilusión con la que comenzó su abuelo.

MÁQUINAS DE COSER ALFA BILBAO

– 1927 –

1927an, Hernani eta Lamana kaleen arteko izkinan ireki zen Alfa. Félix Martínezen birraititak, aititarekin batera, Alfa markaren kontratua lortu zuen Bizkairako. Handik 15 urtera, Bertendona kaleko lokalera aldatu ziren. Aspaldi batean animazio eta mugimendu handiko kalea zen, Athletic Clubeko bulegoak baitzeuden han. Félix Martínezek dioenez —negozioko laugarren belaunaldia—, "kopa bat irabazten zen bakoitzean, saltsa izaten zen".
Alfa Bilbao josteko etxeko makinekin hasi zen, eta makina industrialak sartu zituen geroago. Gaur egun, josteko makinak eta lisaburdinak saltzeaz gainera, josteko makinak konpontzen dituzte, eta makinaz josten ikasteko ikastaroak eskaintzen dituzte adin guztietako jendearentzat, ikasteko ez ezik, ongi pasatzeko aproposak.
Produktu eta zerbitzuen kalitate ona da establezimenduaren indargunea, eta tratu pertsonala eta aholku pertsonalizatuak dira etxeko bereizgarria. Gaur egun, produktuak webgunearen bidez erosteko aukera eskaintzen du.

Bertendona Kalea, 2
Tel. 944 152 862 / 607 518 380
alfabilbao@alfabilbao.es
www.alfabilbao.es

En 1927, Alfa abrió en la esquina de las calles Hernani con Lamana. El bisabuelo de Félix Martínez, junto con su abuelo, consiguió el contrato de la marca Alfa para Bizkaia. Pero 15 años después, se mudaron al local de la calle Bertendona. Antiguamente en esta calle se situaban las oficinas del Athletic Club lo que hacía de ella una calle muy animada y con mucho movimiento de gente. Félix Martínez, cuarta generación del negocio, cuenta que "cada vez que se ganaba una copa siempre había meneo".
Máquinas de coser Alfa empezó con las máquinas domésticas y más adelante introdujo las máquinas industriales. Hoy en día, esta tienda, además de la venta de máquinas de coser y planchas, ofrece servicio de reparación y cursos destinados a todas las edades, perfectos para aprender y pasar un buen rato.
La buena calidad de sus productos y servicios es su punto fuerte y el trato personal en tienda y los consejos personalizados marca de la casa. Actualmente, ofrece la posibilidad de adquirir sus productos a través de su página web.

PASTELERÍA ARRESE 1852 GOZOTEGIA

– 1852 –

Arrese familia Otxandiotik Bilbora etorri zen 1852an. Lehenengo, janari-denda bat eduki zuten, baina gero produktu gozoagoetara pasatu ziren. Orain Josetxu Arrese da nagusia, gozoginen seigarren belaunaldikoa, eta bilbotarrei gogoko dituzten gozoak eskaintzen dizkie. Webguneari esker, gozotegiko produktu bikainak dasta ditzake nahi duenak, edonon bizi dela ere.
Arrese urtetik urtera eguneratzen da, betiere hasierako esentzia mantenduta. Gozotegi honetako palmerek eta gurinezko opilek etorkizun amaigabea dute Bilboko belaunaldien artean. Baina Arreseko altxor preziatuena trufak dira; horregatik, berriztatuz eta lehengaiak hobetuz joan dira. Gozotegi honek Bilboko esentzia mantentzen du, eta etorkizunean munduko edozein tokitara eraman nahi ditu bere produktuak.
Bitxitasun gisa, esango dugu Arrese denda ia guztiak izkinetan daudela, bi kaletatik ikusi ahal izateko.

La familia Arrese vino a Bilbao procedente de Otxandio en 1852. Su primera tienda fue un ultramarinos, pero más adelante cambiaron al producto más dulce. Ahora, con Josetxu Arrese al mando, se cumple la sexta generación pastelera, que consigue endulzar los paladares de bilbainos y bilbainas. Gracias a su web, quien quiera puede degustar sus deliciosas creaciones desde casa, viva donde viva.
Arrese se va actualizando año tras año, pero siempre manteniendo la esencia de los comienzos. Sus famosas palmeras y bollos de mantequilla tienen un futuro infinito entre las generaciones bilbainas. Pero la joya de la corona de Arrese son sus trufas, por eso, han ido innovando y mejorando con las materias primas. Esta pastelería conserva su espíritu bilbaino y su visión de futuro es poder llevar sus dulces a todos los rincones del planeta.
Como curiosidad, casi todas las tiendas de Arrese están situadas en esquinas, para aprovechar la visibilidad de dos calles.

On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia, 24
Tel. 944 402 095
jau@arrese.biz
www.arrese.biz

Beste kokapen batzuk // Otras ubicaciones: Rodríguez Arias, 29 // Fueros, 2 // Berastegi, 1 // Ercilla, 29 // Alameda Rekalde 24 (Esquina Henao) // Calle Mayor 9, Getxo

PASTELERÍAS MARTINA DE ZURICALDAY BILBAO

– 1830 –

Martina de Zuricalday Bilbao izan zen estatuko lehenengo artisau-gozotegietako bat. Ia 200 urteko historia du. Dagoeneko seigarren belaunaldia arduratzen da goizero produktuak lantegian prestatzeaz, erabat eskuz eta Martinaren maisulan-errezeta sekretuen arabera, osagai natural onenekin eta kontserbagarri artifizialik erabili gabe. Martina de Zuricalday gozogintzaren ikono bat da hirian, Bilboko gozogintzako klasiko bat, ezinbestekoa mahaietan, "txikitatik irauten duen etxeko zaporeduna."

Espezialistak dira mota guztietako gozoetan. Haien artean, gurinezko opil biribil eta harroak nabarmentzen dira, eta karolinak, palmerak, macaronak eta tarta bikainak. Gozo horien guztien errezeten atzean sei belaunalditako bezeroen familia-historiak daude, konfiantza baitute betiko zaporean, baina egungo joeretara egokituta. Duela gutxi Tradizioa Etorkizunarekin saria eta Gastronomiako Bikaintasunaren Saria irabazi ditu. Bilboko Udalak "Bilboko ospetsu" izendatu zituen 2015ean.

San Jose Plaza, 3
Tel. 944 241 346
martinazuricalday@gmail.com
www.martinazuricalday.com

Martina de Zuricalday Bilbao, con casi 200 años de historia, fue una de las primeras pastelerías artesanales del Estado. Desde hace seis generaciones, elaboran sus creaciones en su obrador cada mañana, totalmente a mano y siguiendo las recetas maestras secretas de Martina, con los mejores ingredientes naturales y sin conservantes artificiales. Martina de Zuricalday es un icono del dulce en la Villa, un clásico de la repostería bilbaina que no puede faltar, "con el sabor a hogar que perdura desde la infancia."

Son especialistas en todo tipo de dulces, entre los que destacan sus redonditos y esponjosos bollos de mantequilla, sus carolinas, sus palmeras, sus macarons y sus exquisitas tartas. Detrás de cada una de sus recetas, se esconden historias familiares de seis generaciones de clientes y tradición confiando en el sabor de siempre, pero adaptándose a las tendencias actuales. Recientemente han ganado los premios a "La Tradición con Futuro" y también el "Premio a la Excelencia en gastronomía". En 2015, nombrados por el Ayuntamiento de Bilbao, son "Ilustres de Bilbao".

Beste kokapen batzuk // Otras ubicaciones: Ercilla, 43 // Rodríguez Arias, 48 // Doctor Areilza, 38

PESCADERÍAS VASCAS

– 1910 –

Pescaderías Vascas ospetsuak 112 urte daramatza Kantauri itsasoko gutiziaz betetako erakusleiho batekin. Hasierako garaietan, Galiziako enplegatuen belaunaldiak erakarri zituen Bilbora, eta, azkenean, arrandegiaren jabe izatera iritsi ziren.
Saturninok, egungo jabeak, 83 urte ditu, eta 1983ko uholdeek lokala nola suntsitu zuten ikusi zuen. Hala ere, ez zuten etsi, eta negozioarekin jarraitu ahal izateko irtenbideak bilatu zituzten. Garai hartan, Erriberako azokatik Erakustazokara aldatu ziren, eta Saturninok izotza ekartzen zuen Castrotik, beste arrandegi batzuek arrain freskoa izan zezaten.
Gaur egun, Pescaderías Vascas arrandegiak batez ere legatzak eta antxoak saltzen dizkie Bilboko ostalaritzako establezimenduei eta herritarrei. Haiek dira establezimenduaren produktu ezagunenak. Arrandegiak beti eduki du izen ona, eta jendea itsasoko produktu onenen bila joaten da Astarloa kaleko establezimendu honetara.

Astarloa Kalea, 1
Tel. 944 236 091
pescaderiasvascas@gmail.com

La emblemática Pescaderías Vascas lleva 112 años en marcha con un escaparate repleto de delicias del mar Cantábrico. En sus inicios trajo a Bilbao a generaciones de empleados y empleadas procedentes de Galicia, que acabaron convirtiéndose en dueños y dueñas de la propia pescadería.
Saturnino, el propietario actual, tiene ahora 83 años y vio como las inundaciones de agosto de 1983 destrozaron su local. Sin embargo, nunca se dieron por vencidos y buscaron soluciones para mantenerse. En esa época, se mudaron del Mercado de la Ribera a la Feria de Muestras y Saturnino traía hielo de Castro para que otras pescaderías pudieran tener pescado fresco.
Actualmente, Pescaderías Vascas abastece, sobre todo, con merluza y anchoas a la hostelería y ciudadanía de Bilbao. Son sus productos estrella. Esta pescadería siempre ha gozado de prestigio y el público acude a este céntrico establecimiento de la calle Astarloa en busca de los mejores productos del mar.

ZUBIRI

– 1908 –

Zubiri lentzeria- eta moda-dendak erreferentea dira lentzeriaren sektorean. Tradizioa, abangoardia eta klasizismoa uztartzen dituzte. Familia-enpresa hau 1908. urtean sortu zen, munduko hainbat tokitatik ekarritako estilo klasiko eta pertsonaleko arropak eskaintzeko; gaur egun, familiako hirugarren belaunaldiak zuzentzen du saltokia.

Ehun urtetik gorako ibilbide horretan, estatuko eta atzerriko marka eta diseinatzaile onenen produktu berrienak lortzeagatik nabarmendu dira. Horretarako, azokak bisitatzen dituzte Europan barrena, eta munduko gainerako tokietako arropen bila aritzen dira etengabe.

Gaur egun, aholku ematen diete bezeroei lentzeria eta emakumezkoentzako moda erosteko garaian, eta gizon eta haurrentzako arropak eta produktu bereziak ere badituzte. Berrikuntzaren aldeko apustua egin dute, eta, garai berrietara egokituz, onlineko denda ere jarri dute.

Poza Lizentziatuaren Kalea, 33
Tel. 944 700 688 / 944 763 356
sabinzubiri@lenceriazubiri.com
www.lenceriazubiri.com

Las tiendas de lencería y moda Zubiri son un referente en el mundo de la lencería femenina. Mezclan tradición, vanguardia y clasicismo. La empresa familiar, regentada actualmente por la tercera generación, abrió sus puertas en 1908 para vestir con estilo clásico y personal prendas traídas de diferentes partes del mundo.

A lo largo de más de un siglo de historia, han destacado por conseguir los mejores y más novedosos artículos de firmas y diseñadores estatales y extranjeros. Para ello, realizan visitas a ferias europeas y buscan continuamente artículos de fabricantes del resto del mundo.

Actualmente, acompañan y asesoran a la clientela al comprar lencería y moda femenina y ofrecen un amplio muestrario para caballero, niños y artículos especiales. Apuestan por la innovación adaptándose a los nuevos tiempos con su tienda online.

Beste kokapen batzuk // Otras ubicaciones: Avenida Madariaga, 22

CALZADOS OTAZUA

– 1872 –

Otazua oinetako-denda, 1872an sortua, Bilboko zaharrena da. Lehenengo denda Zazpikaleetan zegoen, eta 1968an Indautxura aldatu zuten. Gaur egun lau denda dituzte: Bilbon, Basaurin, Mungian eta Barakaldon.
150 urteko esperientzia dute, eta laugarren belaunaldia arduratzen da orain negozioaz. Urte horietan guztietan, negozioa berrasmatzen eta berriztatzen ikasi dute. Materialei sektoreko aurrerapen teknologikoak aplikatzen dizkiete, hala nola zuntz iragazgaitzak eta larruen tratamenduak, eta material horiek azken joerekin konbinatzen dituzte. Arreta berezia eskaintzen diete orkoiei, oinen ongizatea zaintzen baitute oinez ibiltzen garenean, eta, hala, produktuen erosotasuna eta arintasuna bermatzen dute.
Oin eta adin guztietarako oinetakoen sorta zabal bat dute, eta bilbotarren gustura egokitutako moda eskaintzen dute. Diseinua, kalitatea eta erosotasuna dituzte bereizgarri.

Gregorio de la Revilla Zumarkalea, 11
Tel. 638 063 963
calzadosotazua@hotmail.com
www.otazua.es

Calzados Otazua, 1872, es la zapatería más antigua de Bilbao. La primera tienda estaba ubicada en el Casco Viejo y en 1968, se trasladó a Indautxu. Actualmente, cuenta con cuatro tiendas: en Bilbao, Basauri, Mungia y Barakaldo.
Con 150 años de experiencia, es la cuarta generación la que está al frente del negocio que han aprendido a reinventar e innovar. Combinan las últimas tendencias con materiales a los que les aplican los avances tecnológicos del sector, como las membranas impermeables o los tratamientos de las pieles. Otro elemento que cuidan especialmente son las hormas que protegen el bienestar de los pies al andar asegurando el confort y la ligereza en sus productos.
Cuentan con una amplia gama de calzado para todo tipo de pies y edades y ofrecen moda adaptada al gusto bilbaino marcando la diferencia en diseño, calidad y comodidad.

Beste kokapen batzuk // Otras ubicaciones: Balendin Berriotxoa, 8, Basauri // Butroi kalea, 10, Mungia // Herriko Plaza, 7, Barakaldo

JOYERÍA FERNANDO MONGE 1891

– 1891 –

Bitxi-denda 1891n sortu zen, Juan F. Monge Otaduy arabar urregilea Bilbora aldatu zenean. Haren seme Fernandok Zazpikaleetako bitxigintzako eta Anberesko diamanteen inportazioko lehenengo negozioa abiarazi zuen. Haren semeak jarraitu zuen negozioa zuzentzen, eta beste denda bat ireki zuen 1947an Ercilla kalean. Perla-inportazioarekin hasi zen, eta ospe handia hartu zuen. Bizkaiko bitxigileen gremioko lehendakaria izan zen hil zen arte, 1978an. Gaur egun, bitxi-dendak 130 urtetik gora bete ditu Bilbon, eta laugarren belaunaldiko Manuel F. Monge gemologo adituak zuzentzen du negozioa.

Fernando Monge bitxitegiak neurrira egiten ditu bitxiak. Bitxi esklusiboak egiten dituzte, bitxigintzan duten jakintzari esker. Eskaintzen dituzten bitxien artean bitxi pertsonalizatuak nabarmentzen dira: beren lantegietan egiten dituzte artisau-eran, material nobleak erabiliz, hala nola platinoa, urrea, zilarra, diamanteak eta harribitxiak. Gainera, bezero eta okasio bakoitzerako pieza paregabeak dituzte; hala, oparitzen den bitxia lotura emozional estu bilakatzen da, bizi guztirako irauten duena.

Ercilla Kalea, 34
Tel. 944 439 247
monge1891@gmail.com
www.monge1891.com



Los inicios de la joyería datan de 1891, cuando Juan F. Monge Otaduy, orfebre alavés se trasladó a Bilbao. Su hijo Fernando, puso en marcha el primer negocio de joyería en las Siete Calles y la importación de diamantes de Amberes. Le sucedió en el negocio su hijo, quien en 1947, abrió un nuevo comercio en la calle Ercilla e inició un negocio de importación de perlas que adquirió un gran prestigio y le llevó a ostentar la presidencia del gremio de joyeros de Bizkaia, hasta su muerte, en 1978. Actualmente, Manuel F. Monge, cuarta generación, experto gemólogo, es quien continúa en la dirección cuando la joyería ha cumplido más de 130 años en Bilbao.

Joyería Fernando Monge apuesta por la fabricación de joyas a medida. Desarrollan una joyería exclusiva gracias a su conocimiento de la profesión en la que destacan las joyas personalizadas y realizadas artesanalmente en sus talleres, con materiales nobles como el platino, el oro, la plata, los diamantes y piedras preciosas. Además, cuentan con piezas únicas para los distintos clientes y ocasiones, haciendo que el regalo de una joya se convierta en un fuerte vínculo emocional que perdura toda la vida.

JOYERÍA IGNACIO ÁLVAREZ

– 1881 –

1881ean sortu zen bitxi-denda hau, eta erreferentea da bitxigintzaren sektorean, kalitate handiko piezak eskaintzen baititu. XIX. mendearen amaieratik aurrera Casa Álvarez bitxi-dendak bi establezimendu izan zituen Bilbon, tailer bat Laudion, eta bitxigintzako fabrika handi bat. Fabrika hori Henao kalean zegoen hasieran, eta, gero, Erruki-etxearen eta San Mames zelaiaren ondoan. Gaur egun, Ercilla kalean dago bitxi-denda eta Getxon beste establezimendu bat dute.

141 urteko historia dute, eta Alfontso XIII.aren erregealdia goraipatzeko medailengatik nabarmendu izan ziren; izan ere, arrakasta handia izan zuten nazioartean, eta europar enbaxada guztietan saldu ziren. Esmaltean espezialistak dira, eta nabarmentzekoak dira haien paparrekoak, diamantezko eskumuturrekoak eta diamante eta harribitxien eite eta kalitate bikainak.

Gaur egun, laugarren belaunaldiko bost Álvarez anai-arrebek zuzentzen dute Ignacio Álvarez bitxi-denda. Gemologoak eta diamanteetan adituak dira, Anberesko HRDren arabera, eta ezagutza teknikoak materialen kalitatearekin eta estilo klasiko eta modernoak uztartzen dituen denboraz kanpoko diseinu batekin bateratzen dituzte.

Ercilla Kalea, 26
Tel. 944 167 812
info@joyeriaalvarez.es
joyeriaignacioalvarez.es



Fundada en 1881, ha sido un referente en el sector de la joyería por la gran calidad de sus piezas. Desde finales del siglo XIX, la Casa Álvarez contó con dos establecimientos en Bilbao, un taller en Llodio y una gran fábrica de joyería. Esta fábrica estuvo primero en la calle Henao y posteriormente, junto a la Misericordia y el campo de San Mamés. Hoy en día, se encuentra en la céntrica calle Ercilla y cuenta con otro establecimiento en Getxo.

Durante sus 141 años de vida, han destacado por las medallas conmemorativas del reinado de Alfonso XIII, las cuales tuvieron un gran éxito internacional y se vendieron en todas las Embajadas Europeas. Son especialistas en esmalte, destacando los broches, pulseras de diamantes y las magníficas hechuras y calidad de sus diamantes y gemas.

En la actualidad, los cinco hermanos Álvarez pertenecientes a la cuarta generación, siguen al frente. Gemólogos y especialistas en Diamantes por el HRD de Amberes, aúnan conocimientos técnicos con la calidad de los materiales y un diseño atemporal que fusiona estilos clásicos y modernos.

Beste kokapen batzuk // Otras ubicaciones: Las Mercedes 19, Getxo.

LOS ENCAJEROS

– 1880 –

1880ean hasi zen establezimenduaren historia, urte hartan zabaldu baitzuten arropa zuri fina egiteko lehenengo establezimendua, Zazpikaleetan. 140 urtetik gorako ibilbidea egin dute jada: laugarren belaunaldia arduratzen da gaur egun establezimenduaz. Luxu klasiko eta tradizionala da haien ezaugarri bereizgarria. Erreferenteak dira dotorezian eta gustu onean etxerako arroparen eta haurrentzako arroparen diseinuan. Hortik dator beren leloa: "Klasikoetan inspiratuak eta gauzak ongi egitearen zaleak, Los Encajeros zure etxean, zurekin. Denboraz kanpoko diseinu estilo handikoek oroimenean geratuko diren unez betetzen dute zure etxea. Bizi Los Encajeros". Modu tradizionalean egindako material-bilduma zaindu bat dute: pieza bakoitza paregabea da. Marka hori luxuarekin eta kalitatearekin erlazionatzen dute herrialde askotan. Establezimenduaren historian zehar, Europako etxe nagusiak, Europako hainbat monarkia eta enpresa-munduko pertsonaiak jantzi dituzte.

On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia, 57
Tel. 944 638 105
info@losencajeros.es
www.losencajeros.es

Su historia comienza en 1880, año en el que abren el primer establecimiento de confección de lencería fina situado en el Casco Viejo. Con más de 140 años de trayectoria, estando ya en la cuarta generación, se caracterizan por un lujo clásico y tradicional. Son referente en elegancia y buen gusto en diseño y confección de ropa de hogar, así como en ropa infantil. De ahí su lema: "Inspirados en lo clásico y devotos del buen hacer, los Encajeros hacen hogar contigo. Diseños atemporales y con estilo que llenan tu casa de momentos que quedarán en el recuerdo. Vive Los Encajeros".
Cuentan con una cuidadosa elección de materiales de alta calidad confeccionados de forma tradicional, lo que convierte cada una de sus piezas en únicas. Son muchos los países que relacionan su marca al lujo y la calidad. De hecho, han vestido a lo largo de su trayectoria a las principales casas de Europa, varias monarquías europeas y personas del mundo empresarial.

Beste kokapen batzuk // Otras ubicaciones: Núñez de Balboa, 34, Madrid.

SASTRERÍA CARDENAL

– 1894 –

Cardenal goi-mailako artisau-jostundegi bat da, lau belaunaldiren esperientzia profesionalak nabarmendua. 1894an sortu zen, eta erreferente aipagarri bat da Bilbon, ongi janzteari dagokionez. Gaur egun, Gonzalo Cardenal arduratzen da gizonezko dotoreenak doitasunez eta profesionaltasunez janzteaz.
Goi-mailako artisau-joskintza edo bespoke joskintza bakarrik lantzen dute; beraz, jantzi bakoitza paregabea da. Neurrira egiten dituzte arropak, txantiloi esklusibo eta pertsonalizatuak erabiliz. Prozesua eskuz egiten da erabat, eta 50 ordu baino gehiagoko lana eskatzen du traje bakoitzak. Hala, denboraz kanpoko jantziak sortzen dituzte.
Emakumezkoentzako goi-mailako joskintzan ere aritzen dira, eta emakumezkoentzako pieza paregabe eta esklusibo bereizgarriak egiten dituzte.
Oihal-hornitzaile onenen produktuez osatutako katalogoa dute, eta zerbitzu erabat pertsonalizatua eskaintzen dute, bezeroak nahi izanez gero, haren etxera edo bulegora joaten baitira.

On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia, 61
Tel. 944 411 436
info@sastreriacardenal.com
www.sastreriacardenal.com

Cardenal destaca por ser una alta sastrería artesanal con la experiencia profesional de cuatro generaciones. Fundada en 1894, ocupa un lugar privilegiado como referente del buen vestir de Bilbao. Hoy en día Gonzalo Cardenal es quien se encarga de vestir a los hombres más distinguidos con rigor y profesionalidad.
Trabajan exclusivamente Alta Sastrería Artesanal o Sastrería Bespoke, lo que significa que cada prenda es única. Confeccionan a medida elaborando un patrón exclusivo y personalizado. Este proceso se realiza rigurosamente a mano, un procedimiento que supone más de 50 hora de trabajo por cada traje, pero con el que consiguen crear prendas atemporales.
También trabajan la alta sastrería femenina confeccionando piezas únicas y exclusivas para mujeres que marcan la diferencia.
Disponen de un excelente catálogo con los mejores proveedores de telas y ofrecen un servicio totalmente personalizado desplazándose al domicilio, oficina o despacho en caso de que así lo requiera el cliente.

Bilbao

IBAIONDO



28/ ALIMENTACIÓN **LARRINOA** **29/ANTONIO MARTÍNEZ** **30/** CALZADOS **BIZKARGUENAGA** **31/** CALZADOS **ZULUETA** **32/** CAMISERÍA **MUÑOZ** **33/** CESTERÍA **ALONSO** **34/** CUCHILLERÍA **LA TIJERA** **35/** DROGUERÍA-PERFUMERÍA **JUAN TORRE** **36/ EL EQUIPO DE VIAJE** **37/** ESTANCO **ASPIZUA** EXPENDEDURÍA 17 **38/** ESTANCO DE **BIDEBARRIETA** **39/** FARMACIA **URIARTE** **40/** JOYERÍA RELOJERÍA **MANOLO** **41/** JOYERÍA **URALDE** **42/ LA BELGA** **43/** LOTERÍA **AZCARRETA** **44/** LOTERÍA **LA CRUZ** **45/ MELTXORA** **46/ PEDRO SALCEDO** **47/** PLANTAS, SEMILLAS Y FLORES **MIKEL ZUAZUA** **48/** SOMBREROS **GOROSTIAGA** **49/** TURRONERÍA HELADERÍA **ADELIA IVÁÑEZ** **50/** TURRONERÍA **IVAÑEZ** **51/** ULTRAMARINOS **GALINDEZ** **52/** ULTRAMARINOS **GREGORIO MARTÍN** **53/** ESTANCO **Nº13** **54/** TEJIDOS **EL PARAÍSO**

100 EHUN BILBAO 100

BETIKO DENDAK BETIRAKO
COMERCIOS DE TODA LA VIDA Y PARA TODA LA VIDA

ALIMENTACIÓN LARRINOA

– 1897 –

Ángel Fernández-Larrinoa Setiének —bilbotar aitzindaria alderdi askotan— ireki zuen denda; dendaren ondoan, Larrinoa loradenda dago. Ángelen aitonak zabaldu zuen janari-denda Zamacola kalean, haren aitak jarraitu zuen negozioarekin, eta, haren ostean, Ángelen anaiak alde batetik eta Ángelek berak bestetik jarraitu zuten.
Garai batean, janari-denda eguneko 24 orduetan izaten zen zabalik, Naxa kaleko 3. zenbakian, gauetan mugimendu handiko eremua baitzen. Ideia bitxia zen garai hartan, eta New Yorketik hartu zuten.
Gaur egun, denda urteko egun guztietan irekitzen dute, 11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 23:00etara. Denetatik saltzen dute: alkohol-esprai desinfektatzailea, txokolateak, hestebeteak, kontserbak eta beste hainbat produktu; betiko auzokoak dira bezero gehienak. Nabarmentzekoak dira haien laranja, limoi, granada, pomelo eta mandarinak, kalitate handikoak baitira; Málagan duten lursailetik ekartzen dituzte.

Naxa Kalea, 3
Tel. 944 159 496
a.larrinoa@yahoo.com

Ángel Fernández-Larrinoa Setién, bilbaino pionero en muchos ámbitos, fue el encargado de abrir esta tienda junto a la que se encuentra la tienda de plantas Larrinoa. El establecimiento de comestibles lo comenzó su abuelo en la calle Zamakola, lo continuó su padre, y tras ellos mantuvieron el legado su hermano por un lado y Ángel por otro.
Antiguamente, la tienda de comestibles estaba abierta las 24 horas del día en la calle Naja 3, una zona de gran actividad nocturna. Importaron esta curiosa idea para la época de Nueva York. En la actualidad, la tienda abre todos los días del año, de 11:00h. a 15:00h. y de 18:00h. a 23:00h. Venden desde spray de alcohol desinfectante hasta chocolates, embutidos o conservas, en su mayoría a personas del barrio que llevan toda la vida acudiendo a la tienda. En su oferta destacan sus naranjas, limones, granadas, pomelos y mandarinas de gran calidad, traídas desde su propia finca de Málaga.

ANTONIO MARTÍNEZ

– 1924 –

Ireki zutenean, 1924an, alkandora-denda zen, eta handik gutxira pijamak saltzen hasi ziren. XX. mendean aurrera zihoala, katalogoa zabaldu eta etxerako ehungintza ere eskaintzen hasi ziren: edredoiak, izarak, tapakiak, toallak…

Aitzindariak izan ziren Bilbon, Europako iparraldean modan zeuden ohazal nordikoak ekarri baitzituzten hirira. Negozioak ilusioz egin zien aurre 1983ko uholdeen ondorioei, lanean jarraitzeko gogoz, orain arte bezala.

Gaur egun familiako hirugarren belaunaldia arduratzen da negozioaz, eta gertutik jarraitzen diete sektoreko joerei, etxerako produkturik berrienak eskaintzeko bezeroei; esate baterako, Irlandatik ekartzen dituzten mohairrezko tapakiak. Tratu pertsonalizatua eta bikaintasuneko produktuak eskaintzen dituzte, ehun onenez eginak, eta saltoki handietako produktuen aldean duten kalitate-desberdintasuna nabarmentzen dute.

Banco España Kalea, 2
Tel. 944 153 909
tienda@antoniomartinezhome.com
antoniomartinezhome.com



En sus inicios, en el año 1924, fue una camisería y, poco después, comenzaron a vender pijamas. Avanzado el siglo XX se unieron al negocio de la confección de edredones ampliando su catálogo con sábanas, mantas, toallas... En definitiva, textil para el hogar.

Fueron pioneros en Bilbao al introducir las modernas colchas nórdicas que estaban muy de moda al norte de Europa. Este negocio superó las inundaciones de 1983 con ilusión y ganas de seguir adelante hasta nuestros días.

Actualmente, al frente está la tercera generación y continúan muy pendientes de las tendencias en el sector para acercar al cliente lo último para nuestro hogar como mantas de mohair traídas desde Irlanda. Apuestan por el trato personalizado y los productos de excelencia, con los mejores tejidos, insistiendo en la diferencia de calidad de sus productos respecto a los de las grandes superficies.

CALZADOS BIZKARGUENAGA

– 1910 –

Lucia Arana Larrea bere izeko Dolores Aranaren abarketa-dendan hasi zen lanean 1910ean. 1931n, Eugenio Bizkarguenaga senarrarekin batera, negozioaren zuzendaritza hartu zuten, eta Calzados Bizkarguenaga izena jarri zioten.

Denda Goienkale kalean egon izan da beti, harik eta duela urte gutxi batzuk Artekaleko 14.era aldatu zuten arte. Negozioa hasi zenetik bertatik, dendaren kanpoaldean abarketa handi bana eduki izan dute zintzilik beti, alde bakoitzean.

Denda sortu zutenean, oin handi eta txikietarako eta oin delikatuetarako oinetakoak eta zabalera bereziko oinetakoak izateagatik ziren ezagunak. Gaur egun, mota guztietako oinetakoetarako oinetakoak dituzte. Abarketak dira saltokiko produktu ezagunenak, mota eta kolore askotakoak. Abarketak pertsonalizatzen dituzte, dantzarien zinta gurutzatuak jarriz, eta oinetako tradizionalak ere mantentzen dituzte, hala nola babutxak, safariak eta mendiko botak.

Artekale, 14
Tel. 944 161 240
calzadosbizkarguenaga@gmail.com
calzadosbizkarguenaga.com
www.dendago.com/bizkarguenaga

En 1910 Lucia Arana Larrea empezó a trabajar en la alpargatería de su tía Dña. Dolores Arana. En 1931, junto a su marido Eugenio Bizkarguenaga, se pusieron al frente del negocio, cambiando el nombre a Calzados Bizkarguenaga.

La tienda siempre ha estado ubicada en la calle Somera, hasta hace unos pocos años que se reubicaron en la calle Artekale, 14. Desde sus inicios, siempre ha tenido fuera del escaparate, a cada lado, una alpargata grande colgando, objeto que les caracteriza.

En su fundación, se distinguían por tener calzados para pies grandes y pequeños, delicados y anchos especiales. En la actualidad, se puede encontrar calzado para todo tipo de pies. Su producto estrella son las alpargatas, contando con una gran variedad de modelos y colores. Personalizan las alpargatas, añadiéndoles cintas cruzadas de dantzari y mantienen artículos tradicionales como las babuchas, las pisamierdas o las botas de monte.

CALZADOS ZULUETA

– 1888 –

Zulueta oinetako-dendaren historia 1888an hasi zen Foru kalean, Plaza Barriaren ondoan. Oin, neurri eta adin guztietarako oinetakoak saltzen zituzten hasieran. 1962an, negozioa berriztatzeko erabakia hartu zuten, eta oin delikatuetan espezializatu ziren, emakumezkoentzat bakarrik. Garai hartan, produktu-mota horretan espezializatutako Bilboko saltoki bakarretako bat zen, eta gaur egun ere negozio-eredu hori mantentzen dute, garai berrietara egokituta.

Familiako laugarren belaunaldia arduratzen da negozioaz gaur egun. Orkoi berezietan egindako oinetakoak eta barne-zola ortopedikoekin erabil daitezkeenak saltzen dituzte, besteak beste. Publikoa aldatuz joan da urteak igaro ahala. Gaur egun, oinetako-denda honetako bezeroek erosotasuna eta beren premietara egokitutako oinetakoak bilatzen dituzte, dotoretasuna eta estiloa alde batera utzi gabe; izan ere, haiek esaten duten moduan, "ez dago adinik, premia baizik".

Zulueta oinetako-dendan, zapata klasikoez gainera, sandaliak eta zapatila modernoak

---

Foru Kalea, 4
Tel. 944 156 717
calzadoszulueta1888@gmail.com
calzadoszulueta.negocio.site

La historia de Calzados Zulueta comienza en 1888 en la calle Fueros, junto a la Plaza Nueva. Comenzó siendo una zapatería que comercializaba calzado para todo tipo de pies, tallas y edades. En 1962, decidieron renovar el negocio y especializarse en pie delicado exclusivamente para la mujer. Entonces, eran de los pocos comercios de Bilbao especializados en este tipo de producto y todavía hoy mantienen este modelo de negocio adaptándose a los nuevos tiempos.

En la actualidad, es la cuarta generación la que está al frente del establecimiento. Entre sus productos, se pueden encontrar diferentes modelos, con hormas especiales y calzado adaptado al uso de plantillas ortopédicas. A lo largo de los años, su público ha ido cambiando. Actualmente, la clientela que acude a esta tienda busca comodidad y calzado adaptado a sus necesidades especiales, sin dejar de lado la elegancia y el estilo ya que en sus palabras "no hay edad, lo que hay es necesidad".

Calzados Zulueta dispone tanto de zapatos de vestir más clásicos, como de sandalias y zapatillas más modernas.

CAMISERÍA MUÑOZ

– 1892 –

Zazpikaleetako kale nagusietako batean, Bidebarrietan, dago gizonezkoentzako alkandora-denda entzutetsu hau. 1892an zabaldu zuten, Viktor kalean, lehenago jatetxe bat zegoen tokian. 1927an gaur egungo lokalera aldatu ziren, eta jada laugarren belaunaldiak zuzentzen du negozioa.

Erreferentziazko alkandora-denda da Bilbon, alkandoretan eta xehekako salmentan espezializatua. Ekitaldi berezietan, lanean eta ezkontza, bataio eta jaunartzeetan janzteko aholkuak ematen dituzte, estilo formala aukeratzen dutenentzat zein casual estiloa aukeratzen dutenentzat.

Gizonezkoentzako arropa ugari dute (poloak, jakak, prakak eta larruzko jakak), eta zerbitzu esklusiboa eskaintzen diete bezeroei, 130 urteko esperientziak ematen dien sektorearen ezagutzari esker.

Bidebarrieta Kalea 12-Jardines Kalea 10
Tel. 944 155 857
culumpios@hotmail.es

En una de las arterias principales del Casco Viejo, en Bidebarrieta, encontramos esta prestigiosa camisería a medida de caballero. Fue fundada en octubre de 1892 en la calle Víctor, lugar en el que antiguamente se ubicaba un restaurante. Desde 1927, se encuentra en su ubicación actual, regentada por la cuarta generación.

Es famosa en toda la Villa por tratarse de una camisería de referencia, especializada en camisas, así como por la venta al detalle. Asesoran para vestir en eventos especiales, en entornos laborales, bodas, bautizos y comuniones, tanto para un estilo formal como casual.

Cuentan con una gran variedad de prendas masculinas como polos, pantalones, chaquetas o cazadoras de piel y ofrecen un servicio exclusivo a sus clientes debido a su conocimiento del sector tras sus 130 años de experiencia.

CESTERÍA ALONSO

– 1900 –

Bilboko Zazpikaleetan dago erreferentziazko saski-denda hau, Belostikalen, garai batean jostundegia izandako lokal batean. Zumea eta ihia artisau-eran lantzen dituzte 1900. urteaz geroztik.
Gaur egungo kokapenaren aurretik, kale bereko 22. eta 16. zenbakietan egon izan da denda. Egungo arduradunaren aita Belostikalen bizi zen mandatari-lanetan hasi zenean, eta, geroago, negozioa erosi zuen. Gizona hil zenean, haren seme-alabek hartu zuten saski-denda.
Belaunaldiz belaunaldi eskaini dizkiete bezeroei artisau-eran egindako produktuak, hala nola lorategirako altzariak eta aulkiak, besteak beste. Saltzen dituzten produktuen artean, perretxikoak biltzeko otarrak eta gaztainondoz eta zumez egindako produktuak nabarmentzen dira; langile gaituek egiten dituzte, kalitate handiko materialak erabiliz.

Belostikale, 15
Tel. 944 153 351 / 657 266 239
cesteriaalonso@gmail.com
www.cesteriaalonso.com

En el Casco Viejo de Bilbao, en Belostikale, se encuentra esta cestería referente en la Villa, en el local de una antigua sastrería. En Cestería Alonso desde 1900 se dedican al trabajo artesanal de mimbre y junco.
Antes de la ubicación actual, se encontraba en el número 22 y 16 de la misma calle. El padre de la encargada actual vivía en Belostikale, cuando comenzó a trabajar de recadista, para más tarde adquirir el negocio. Al fallecer éste, la cestería pasó a ser de sus hijos.
Son varias generaciones las que llevan dedicándose a ofrecer a los clientes productos elaborados de manera artesanal como mobiliario de jardín o sillas, entre otros. En su oferta destacan las cestas para setas y los productos de castaño y mimbre elaborados con materiales de alta calidad por personal cualificado.

CUCHILLERÍA LA TIJERA

– 1893 –

La Tijera saltokiak 120 urte baino gehiago daramatza Goienkale kaleko lokalean. 1893ean sortu zuten negozioa beren aurrekoengandik jasotako ezagutzari esker, eta gaur egun hirugarren belaunaldiak zuzentzen du denda. XIX. mendean, zorrotzaile eta guraize-saltzaile moduan hasi ziren, eta zapatariei zolak eta takoiak saltzen zizkieten.
Zorrozteko motorrak eduki aurretik, sistema bitxi bat erabiltzen zuten: txakur batek lasterka egiten zuen gurpil baten barruan, eta gurpilaren errotazio horrek polea mugiarazten zuen.
Urteen joan-etorriarekin, produktu gehiago eskaintzen hasi ziren; besteak beste, poltsak, larrukiak eta aterkiak. Baina aizto-mota ugari eskaintzeak nabarmendu izan ditu beti: kirol-aiztoak (mendiko aiztoak, labanak…), aizto profesionalak (aihotzak, sukaldeko aiztoak, etxerako altzairua…) eta bildumagileentzako arma erreprodukzioak (ezpatak, katanak eta armadurak).
"Nork ebakitzen du Zazpikaleetan? La Tijerak."
Saltzen dituzten produktuen espezializazio-maila, bezeroei eskaintzen dieten tratu espezializatua eta urteetako izen ona dira saltokiaren bereizgarriak.

Goienkale, 31
Tel. 944 160 578
javi.latijera@gmail.com

La Tijera lleva a sus espaldas más de 120 años en su local de la calle Somera. Desde 1893 han aprendido el oficio con los conocimientos legados por sus predecesores, hasta llegar a la actual tercera generación. En el siglo XIX, comenzaron como afiladores y vendedores de tijeras, además de proveer a los zapateros con suelas y tacones.
Antes de contar con motores para afilar, utilizaban un curioso sistema basado en un perro que corría dentro de una rueda y, dicha rotación, hacía que moviese la polea.
Con el paso de los años, añadieron a su inventario bolsos, marroquinería y paraguas, pero siempre ha destacado por su amplio surtido de cuchillería tanto deportiva (cuchillos de monte, navajas...), como profesional, (machetes, cuchillos de cocina, acero doméstico...) y sus reproducciones de armas para coleccionistas, como espadas, katanas y armaduras.
"¿Quién corta en el Casco Viejo? La Tijera."
Les diferencia la especialización de los artículos que venden, el trato especializado a la clientela y el buen hacer a lo largo de los años.

DROGUERÍA-PERFUMERÍA JUAN TORRE

– 1920 –

Juan Torre drogeria-lurrindegia 1920az geroztik dago zabalik, Zazpikaleetan. Establezimendua dagoen eraikina XVI. mendeko baserri bat izan zela uste da, baina obrak eta fatxadan berrikuntza-lanak egin ahala haren arrastoa galduz joan da.
Amaia da gaur egungo jabea, hirugarren belaunaldikoa. Haren aititak sortu zuen drogeria. Gaur egun, kalitatea eta arreta pertsonal eta indibidualizatua nabarmentzen dira negozioan.
Bezeroentzat, Chimbo xaboia eta anila dira produktu ezagunenak. Lokala txikia da, baina katalogo zabal bat eskaintzen du, eta ongi merezia du "han aurkitzen ez baduzu, ez dauka inork" esaldi ezaguna. Hala ere, Juan Torre drogeria-lurrindegian erraz aurkitzen ez den produkturen bat eskatzen badu norbaitek, beren kontaktu-sare zabalaren bidez lortzen saiatzen dira, edo non aurkitu daitekeen esaten dute.

Artekale, 6
Tel. 944 160 684
ladrogueriajuan@hotmail.com

Droguería-Perfumería Juan Torre lleva funcionando desde 1920 en pleno Casco Viejo. Se cree que el edificio donde está ubicada fue un caserío del siglo XVI que ha ido perdiéndose como tal tras obras y renovaciones de la fachada.
Amaia, perteneciente a la tercera generación, es la actual propietaria y su aitite fue el que abrió la droguería. Actualmente, en el negocio familiar, prima la calidad y la atención personal e individualizada.
Los productos más populares para la clientela son el jabón Chimbo y el añil. A pesar del reducido tamaño del local, el catálogo con el que trabaja es muy amplio y tiene bien merecida la conocida frase de "si no lo encuentras ahí, no lo tiene nadie". Aun así, los productos que no se consiguen con facilidad en la Droguería-Perfumería Juan Torre los intentan encontrar a través de su amplia red de contactos o informan dónde es posible adquirirlos.

EL EQUIPO DE VIAJE

– 1930 –

El Equipo de Viaje saltokia 1930ean ireki zuten, Erribera kaleko 20.ean. Bidaietarako produktuen eremuan duen jakintzak belaunaldi berriei helarazten asmatu du familia-negozio honek. Hasieran, Ameriketara joateko kutxak saltzen zituzten, eta bilakatuz eta bidaiarien premia berrietara eta teknologiara egokituz joan dira. Saltokiaren negozio-balioen artean, profesionaltasuna eta bezeroekiko arreta bikaina nabarmentzen dira.
Gaur egun, gertuko produktu jasangarriak lehenesten ditu. Bere maleta propioak diseinatzen eta fabrikatzen ditu duela zenbait urtetik. Maleta horiek beren bi denda fisikoetan, Zazpikaleetan eta Indautxu plazan, eta webgunearen bidez eros daitezke.

Erribera Kalea, 20
Tel. 944 166 715
elequipodeviaje@yahoo.es
www.elequipodeviaje.com



El Equipo de Viaje abrió sus puertas en 1930, en la calle Ribera 20. Un negocio familiar que ha sabido trasmitir a las nuevas generaciones sus conocimientos en el mundo de los artículos de viaje. En sus inicios vendían baúles para hacer las Américas y ha ido evolucionando y adaptándose a las nuevas necesidades viajeras y a la tecnología. Dentro de sus valores de negocio está su profesionalidad y exquisita atención al cliente.
Actualmente, sus prioridades son la búsqueda de productos de cercanía y sostenibles. Desde hace unos años diseña y fabrica sus propias maletas, que se pueden encontrar en sus dos tiendas físicas del Casco Viejo y la plaza Indautxu y a través de su página web.

ESTANCO ASPIZUA EXPENDEDURÍA 17

– 1920 –

Erribera kaleko 22.eko atarian Ana dago, Expendeduría 17 estankoko hirugarren belaunaldia. Estankoa lokal berean egon da hasieratik, eta milioika historia ditu kontatzeko; horregatik da hain berezia. Bilbon negozio gutxi daude atari batean, eta estanko hau haietako bat da.
Ana txikitatik dago Expendeduría 17n, amarekin egoten baitzen garai hartan. Ingurua bilakatu duten aldaketa guztiak bizi izan ditu. Urteak igaro ahala, negozioa zabalduz joan da, eta Estatuko loteriak eta beste produktu batzuk ere eskaintzen dizkie orain bilbotarrei erakusmahai txiki baten atzetik. Zalantzarik gabe, Erriberako azokaren aurrez aurre dagoen toki txiki hau, fatxada apaintzen duen txapa batek identifikatzen duena, abegitsua eta paregabea da.

Erribera Kalea, 22

Dentro del portal de la calle Ribera 22, está Ana, la tercera generación de Expendeduría 17. Este estanco lleva en el mismo sitio desde sus orígenes y esconde millones de historias que lo hacen especial. Es de los pocos negocios centenarios de Bilbao que se encuentra afincado en un portal.
Ana está desde niña en Expendeduría 17, en donde acompañaba a su madre. Ha ido viviendo todos los cambios que han trasformado la zona. Con el paso de los años, ella misma ha ampliado el negocio con la venta de Loterías del Estado y otros productos y con su encanto reparte ilusión a la Villa tras un pequeño mostrador. No cabe duda de que este diminuto lugar, identificado con una chapa que adorna su fachada y ubicado frente al Mercado de la Ribera, es acogedor y único.

ESTANCO DE BIDEBARRIETA

– 1878 –

Hiru emakumek gobernatu zuten Bidebarrietako estankoa hasierako garaietan. Lehenengo biak ia 130 urtez izan ziren negozioaren buruan "gizonezkoen mundu" batean, emakume independenteentzat negozio bat zuzentzea zaila zen garaian.

1878eko ekainaren 18an, Justa Cabezas Ojanguren andrea estanko-jabe izendatu zuten; establezimendu honen lehen titularra izan zen, eta Bizkaiko emakumezko estanko-jabeen artean ere lehenengotariko bat izan zen. Gaur egun Juan Ortegak gobernatzen du lokala, eta ehun urtetik gorako historian zehar gertaera garrantzitsuak bizi izan ditu; besteak beste, 1983ko uholdeak. Ura lokaleko sabairaino iritsi zen, eta tabakoa eta garai hartako efektu tinbredunak sabaitik kendu behar izan zituzten, sabaian sartuta geratu baitziren.

2006an lokala erabat berriztatu zen, eta, obretan, ondoko lonjarekiko pareta banatzailearen barruan, eraikineko kotxe-tokiak atariko eskailerarekin komunikatzen zituen atetzarra aurkitu zen.

1983ko uholdeen ostean fatxada berriztatu zenean, jatorrizko itxura mantendu zen. Estankoa erakargarria eta berezia da gaur egun ere, eskaileren forma arkitektonikoa dela eta.

Bidebarrieta Kalea, 2
Tel. 944 154 158

Tres mujeres regentaron el Estanco de Bidebarrieta en sus inicios, las dos primeras, cubrieron un periodo de casi 130 años en un "mundo de hombres" en el que resultaba complicado para una mujer independiente llevar un negocio.

El 18 de junio de 1878, Dª Justa Cabezas Ojanguren fue nombrada estanquera, siendo la primera titular de este establecimiento y una de las primeras estanqueras de Bizkaia. En los más de cien años de historia de este local hasta la actualidad, que es regentado por Juan Ortega, han ocurrido acontecimientos importantes como las inundaciones de 1983. El agua llegó hasta el techo del local y hubo que retirar del techo el tabaco y los efectos timbrados que se utilizaban entonces, ya que se habían quedado empotrados.

En 2006 se realizó una reforma integral del local en la cual, oculta en una pared divisoria con la lonja contigua, se encontró el portón que comunicaba antiguamente las cocheras del edificio con la escalera del portal.

Cuando se restauró la fachada después de las inundaciones de 1983, se mantuvo el estado original y la estética del estanco se mantiene atractiva y curiosa por la forma arquitectónica de las escaleras.

FARMACIA URIARTE

– 1930 –

"La de las Hierbas" izenez da ezaguna. Garai batean, gutunak ere iristen ziren izen horrekin. Egungo jabearen aitona oso landarezalea zen; hark erosi zuen botika 1930ean, eta 2014an haren ilobak eskuratu zuen.
Canosila prestatzen zuten botikan, ile zurietarako soluzio ezagun bat; gehien saltzen zen produktuetako bat zen garai hartan. Horrez gainera, ahoko aftetarako prestakin bat ere egiten zuten —gaur egun ere jarraitzen dute egiten—, eta injekzioak jartzen zituzten.
Gaur egun, bere marka propioa eta produktu natural eta homeopatikoak dituzte bereizgarri; horretan nabarmentzen dira lehen bezala orain ere. Uholdeen ondorioz, lokala egokitu eta berriztatu behar izan zuten, baina, hala ere, esentzia mantentzen du, eta hasierako altzarietako batzuk ditu oraindik.

Arategizar Kalea, 15
Tel. 944 152 390 / 688 888 871
mariauriarte@redfarma.org
www.farmaciauriartealonso.com

Esta farmacia es conocida como "La de las Hierbas". Había una época en la que incluso llegaban cartas a ese nombre. El abuelo de la actual propietaria, un gran amante de las plantas, compró la farmacia en 1930 y en 2014 la adquirió su nieta.
En la farmacia se realizaba el Canosil, una conocida solución propia para las canas, siendo uno de los productos más pedidos en la época. Además, realizaban un preparado para aftas bucales, que continúan haciendo y también se ponían inyecciones.
Hoy en día, sigue destacando por su marca propia y por su producto natural y homeopático, que han mantenido en el tiempo. Con las inundaciones, la lonja tuvo que ser modificada y renovada. Aun así, mantiene su esencia y parte del mobiliario de sus inicios.

JOYERÍA RELOJERÍA MANOLO

– 1930 –

Manolo bitxi- eta erloju-dendak 90 urtetik gorako esperientzia du bitxigintzako eta erlojugintzako produktuak saltzen eta konpontzen, eta etxera eramateko zerbitzua ere badute.
Kapelagile kalean dago saltoki tradizional hau, eraikineko atezaindegia izan zen lokalean; putzu bat dago atezaindegian, Gerra Zibilean ezkutaleku gisa erabilia. Auzokoek, atezain bati ordaindu beharrean, dendak jartzeko baimena ematen zuten, dendariek ere atezain-lana egin baitzezaketen. Horregatik jarri zuten denda atezaindegian.
1930az geroztik, bitxi-dendak produktu ugari eskaintzen ditu, poltsiko guztientzako modukoak. Halaber, ego-kiak dira ezkontzetan, norbait jaiotzen denean, urteurrenetan, urtebetetzeetan eta beste edozein une berezitan oparitzeko. Bitxiez gainera, baditu beste produktu batzuk ere, hala nola erloju eta iratzargailuak.

Kapelagile Kalea 3,
Tel. 944 164 813



Joyería Relojería Manolo cuenta con una experiencia de más de 90 años en la venta y reparación de artículos de joyería, bisutería, relojería y servicio a domicilio.
Este comercio tradicional, en la calle Sombrerería, está ubicado en la antigua portería del bloque, un espacio donde un pozo sirvió como escondite durante la Guerra Civil. Esta ubicación se debe a que las vecinas y vecinos, en lugar de pagar a un portero, permitían que se pusieran comercios que hacían, a su vez, la labor de portero.
Desde 1930 la joyería ofrece una gran variedad de artículos, para todos los bolsillos, que se pueden regalar en los momentos más especiales como bodas, nacimientos, aniversarios o cumpleaños. Además, dispone de otros productos como relojes, tanto de pulsera como despertadores.

JOYERÍA URALDE

– 1863 –

1863an, Uralde andreak bitxitegi bat sortu zuen Zazpikaleetan. Galarza jaunarekin ezkondu zenean, likore-denda bat ere jarri zuten Arategizar kalean. Seme-alabarik izan ez zutenez, bi langilek jaso zuten bitxitegia herentzian. Hala, haietako batek negozioa bereganatu zuen besteak erretiroa hartu zuenean, eta, handik urte batzuetara, haren alabak jarraitu zuen negozioarekin, gaur egun arte.
Lokal berean egon da negozioa lehenengo egunetik bertatik. 1983ko uholdeetan, urak erabat hartu zuen bitxitegia, eraikineko lehenengo solairuraino. Ordura arte estilo frantsestua izan zuen lokalak, baina berregokitu egin behar izan zuten. Urteak igaro diren arren ez du galdu bere esentzia eta klasikorako gustua; haren produktuen artean Begoñako Amaren medailak eta eskumuturreko finak nabarmentzen dira. Gainera, modernizatzen jakin dute, eta publiko guztientzako bitxigintzako pieza modernoagoak ere saltzen dituzte.

Dendarikale, 48
Tel. 944 155 589 / 626 693 807



En 1863, la señora Uralde fundó su propia joyería en el Casco Viejo. Cuando contrajo nupcias con el señor Galarza, ampliaron sus negocios con una licorería en la calle Carnicería Vieja. Como no tuvieron descendencia, la joyería la heredaron dos de sus empleadas. Así, una de ellas acabó adquiriendo el negocio cuando su socia se jubiló y al cabo de unos años, su hija tomó el relevo hasta la actualidad.
El negocio ha estado en el mismo local desde el primer día. En las inundaciones de 1983, la joyería quedó totalmente inundada, hasta la primera planta del edificio. Esto supuso tener que reacondicionar el local, que inicialmente tenía un estilo afrancesado. Con el paso de los años, no han perdido la esencia y el gusto por los clásicos, siendo sus productos más destacados las medallas de Begoña y las pulseritas. Además, se han ido modernizado pasando a vender también piezas de joyería más modernas para todos los públicos.

LA BELGA

– 1887 –

Bilboko zapata-denda klasiko hau 1887an hasi zen marka ezagunetako kalitateko oinetakoen aukera zabal bat eskaintzen; emakumezkoentzako oinetakoetan eta atsedenerako oinetakoetan espezializatuta dago: zabalera bereziak eta barne-zola ortopedikoak erabiltzeko aukera ematen dutenak).
Nieves eta Jose Mari gaur egungo arduradunen birraitaita-birramamek sortu zuten negozioa. Sasoi batean Belgikatik inportatutako paper margotuen denda bat zen, eta handik datorkio izena. Gerra Zibilarekin, inportazio eta esportazioetarako zeuden arazoen ondorioz, jarduera aldatzea erabaki zuten, eta hala hasi ziren oinetakoak saltzen. Betidanik egon da lokal berean, baina, 1983ko uholdeen ostean, denda handitu egin zuten.
La Belgan denboraldiaren arabera aldatzen dira produktuak. Sandaliak eta Gore-Tex materialaz egindako waterproof oinetakoak dira haien produkturik nabarmenenak. Tratu pertsonalizatua, bezeroa zaintzea eta zapata eroso eta egokienak eskaintzeko nahia dira negozio honen bereizgarria.

Foru Kalea-Askao
Tel. 944 153 714
josemari@labelga.com
nieves@labelga.com
labelga.com



Esta clásica zapatería de Bilbao lleva desde 1887 ofreciendo una amplia gama de artículos de calidad de primeras marcas y especializándose en calzado de señora y calzado de descanso, con anchos especiales y para plantillas ortopédicas.
El comercio lo fundaron los bisabuelos de Nieves y José Mari, quienes están ahora al frente del negocio. Antiguamente era una tienda de papeles pintados importados de Bélgica, de ahí su nombre. Con la Guerra Civil, debido a los problemas con las importaciones y exportaciones, decidieron cambiar de actividad pasando a la venta de calzado. Siempre ha estado en el mismo local, aunque tras las inundaciones de 1983 se amplió el establecimiento.
En La Belga los productos van cambiando según la temporada. Entre los más destacados se encuentran las sandalias y el calzado waterproof, de Gore-Tex, su buque insignia. Se trata de un negocio que destaca por el trato personalizado, por mimar al cliente y por el deseo de ofrecer los zapatos más cómodos y adecuados.

LOTERÍA AZCARRETA

– 1914 –

Zazpikaleetan dago Azcarreta loteria-denda, Arriaga antzokiaren aurrez aurre.
Hasiera batean Azcarreta bankua eta moneta-trukeko negozioa izan zen, baina, handik denbora batera, loteria saltzea erabaki zuten sortzaileek. Lau belaunaldi geroago eta pasadizo askoren ondoren, sariak eta ilusioa banatzen jarraitzen dute. Loteria-administrazio honek bigarren sari osoa banatu zuen 1983ko Gabonetan, zorigaiztoko uholdeen ondoren: autoestimu handia eman zion horrek hiriari, eta laguntza handia izan zen negozio askorentzat. 2021eko Gabonetan, El Gordoko bi sari banatu zituzten (laugarren eta bosgarren sariak), eta 2022ko otsailean Primitivako sari bat, milioi bat eurokoa.
Azcarreta loteria-administrazioak zenbaki abonatu berezi bat du, 13rekin amaitzen dena eta palindromoa; horregatik eskatzen du jendeak hainbeste. Gainera, Gabonetan ilara luzeak sortzen dira, bilbotarrek ilusioz itxaroten baitute loteria-administrazio tradizional honetan billete saritu bat lortzeko.

Areatza Kalea, 1
Tel. 944 152 036
info@loteriaazcarreta.com
www.loteriaazcarreta.com



En pleno Casco Viejo, frente al Teatro Arriaga se encuentra Lotería Azcarreta.
Sus comienzos fueron como Banca Azcarreta, negocio de banca y cambio de moneda, pero un tiempo después, las personas que lo fundaron decidieron probar la venta de lotería. Tras cuatro generaciones y muchas anécdotas vividas, siguen repartiendo premios e ilusión. Esta lotería repartió el segundo premio integro en las Navidades de 1983, tras las nefastas inundaciones, dando una inyección de autoestima a toda la ciudad y un alivio para muchos negocios. En la Navidad de 2021 repartieron dos premios gordos (un cuarto y un quinto premio) y en Febrero de 2022, un premio de 1 millón de euros en la Primitiva
Lotería Azcarreta cuenta con un número abonado bastante especial, acaba en 13 y es capicúa, por eso, es muy demandado. Además, son muy conocidas las largas colas que se forman en Navidad, en las que los vecinos y vecinas de la Villa esperan con ilusión conseguir un boleto premiado de esta tradicional administración de lotería.

LOTERÍA LA CRUZ

– 1907 –

La Cruz loteria-denda, 1907an sortua, Bilboko loteria-administrazio zaharrena da. 1937an loteriako "El Gordo" saria saldu zuen, eta, ordudanik, ehun urte baino gehiagoko administrazio honek ilusioa banatzen jarraitzen du belaunaldiz belaunaldi, sari ugari banatu izan baititu hirian.

María Jesús eta Nacho administrazio ezagun honetako hirugarren belaunaldia dira. Establezimendua Larragoiti jauregi-etxe armarridunean dago, Joan Santuen eraikinaren fatxadaren aurrez aurre, Gurutze kaleko 1. zenbakian, Zazpikaleen erdi-erdian. La Cruz administrazioa familia-establezimendu bat da, loteria-salmentaren lekukoa belaunaldiz belaunaldi eraman duena. Ohiko bezero batzuek loteria-zenbaki berera jokatzen dute urte guztian zehar.

Gurutze Kalea, 1
Tel. 944 151 947
loterialacruz@telefonica.net
loterialacruz.es



Lotería La Cruz, 1907, es la administración de lotería más antigua de Bilbao. En 1937 repartió el "Gordo" de la lotería y, desde entonces, esta administración centenaria, generación tras generación, sigue repartiendo con ilusión multitud de premios en la Villa.

María Jesús y Nacho son la tercera generación de esta Administración tan conocida que se encuentra en la casa palacio blasonada de Larragoiti, frente a la fachada de la villa de los Santos Juanes, en la calle la Cruz nº 1, en el corazón del Casco Viejo. Lotería La Cruz es una administración familiar que ha ido manteniendo el testigo de venta de lotería, adaptándose a los tiempos. Cuenta con una clientela habitual que tiene abonados números concretos de lotería que juegan todo el año.

MELTXORA

– 1898 –

Meltxora Goienkaleko 13.ean sortu zen 1898ean. Saltoki hau lehena izan zen, Euskal Herriko modaren barruan, baserritar eta arrantzaleentzako kultura-tradizioz betetako arropak eskaintzen. Gogor lan egin ondoren, errefe-rente bilakatu ziren euskal jantzi tipikoetan.
Meltxoraren biloba arduratzen da saltokiaz gaur egun; umetan, amamari eta aititari laguntzen zien berak dendan. Eboluzionatzen eta berritzen jakin izan dute etengabe, eta, horri esker, Euskal Herriko arropa tradizionala eta etxerako hornigaiak dituzte, artisau-eran eta eskuz sortuak eta eginak.
Urteetan hartutako esperientziari esker, diseinu propioak sortu dituzte, eta gaitasun handia dute janzteko piezak nola konbinatu aholkatzeko. Gaur egun, bi denda dituzte: Arategizar kalean (Zazpikaleak) eta Sopelako Landa Doktorea kaleko 2. zenbakian.

Arategizar Kalea, 16
Tel. 944 153 563
meltxora@hotmail.com
www.meltxora.com

El origen de Meltxora está en Somera, 13 y se remonta a 1898. Fue la primera tienda que se erigió como un lugar lleno de tradición cultural en la moda vasca para vestir a baserritarras y arrantzales. Con esfuerzo y gran trabajo llegaron a convertirse en una referencia de los trajes típicos vascos.
La nieta de Meltxora, que en la actualidad regenta este establecimiento familiar, ayudaba desde niña a su amama y aitite en la tienda. Gracias a una evolución e innovación constante, disponen de una amplia gama de ropa tradicional vasca, menaje y piezas de hogar artesanales, creadas y confeccionadas a mano. Su gran experiencia les ha permitido desarrollar diseños de creación propia y contar con una inmensa capacidad para asesorar profesionalmente sobre cómo combinar las diferentes piezas de los trajes. Actualmente, se puede visitar este espacio en Carnicería Vieja, en pleno Casco Viejo y en su tienda de Sopela, Doctor Landa, 2.



Beste kokapen batzuk // Otras ubicaciones: Doctor Landa, 2, Sopelana.

PEDRO SALCEDO

– 1898 –

Athletic Club sortu zen garai berean sortu zen Pedro Salcedo ere, hau ere ikonoa eta erreferentea Bilbon, etxeko ehunei dagokienez. 1898tik janzten ditu Bilboko eta inguruko etxeetako leiho, ohe eta komunak. 124 urte daramatza Zazpikaleetako lokal berean, eta tratu esklusiboa eman die bezeroei belaunaldiz belaunaldi gortinak eta etxeko arropa egiteko eta diseinatzeko garaian.
Diego eta Ludi daude negozioaren buruan gaur egun. Establezimenduko profesional-taldearekin batera, beren arbasoen tradizioaren esentzia mantentzen dute, garai berrietara egokituta. Horri esker, eta lehen mailako produktuei eta kalitateari esker, Pedro Salcedo erreferentziazko toki bilakatu da, nahitaez bisitatu beharrekoa.

Dendarikale, 23
Tel. 944 167 666
dilula2017@pedrosalcedo.es
www.pedrosalcedo.es



Coincidiendo con el nacimiento del Athletic Club, surgió Pedro Salcedo, otro icono y referente de la moda de hogar en Bilbao. Desde 1898 viste las ventanas, camas y baños de los hogares de la Villa y sus alrededores. Lleva 124 años en el mismo local del Casco Viejo, ofreciendo generación tras generación, un trato exclusivo en la confección y el diseño de cortinas y ropa de hogar. Diego y Ludi, al frente del negocio en la actualidad, y con un buen equipo de profesionales, siguen la esencia de la tradición con la que iban a comprar sus antepasados, pero adaptándose a las nuevas tendencias. Esto, unido a la calidad y productos de primer nivel, han hecho que Pedro Salcedo sea un lugar de referencia y una visita obligada.

PLANTAS, SEMILLAS Y FLORES MIKEL ZUAZUA

– 1920 –

Zazpikaleen erdian dago establezimendua, Erronda kalea kolorez eta bizitasunez betetzen, Zuazua familiaren laugarren belaunaldiaren gidaritzapean. Rosario birramamaren ohiturekin jarraituz, beren landare, hazi eta loreekin betetzen dituzte baratze eta lorategiak.
Negozioaren jatorria Erriberako azokan dago; han saltzen zituen Rosariok, bere postu txikian, Abusu auzoko baserrian ekoizten zituen landareak; eraikinean postua izan zuen lehenengoetakoa izan zen Rosario. Pixkanaka aurrera egin zuen, eta hazi, landare eta lore gehiago eskainiz joan zen.
Gaur egun, Mikel Zuazua establezimendua joera berrietara egokitu da, eta mota guztietako produktuak dituzte baratze, balkoi eta lorategietan jartzeko. Haztegietan produktu onenak bertatik bertara aukeratzeko tradizioa mantendu dute, kalitate oneko baratze eta lorategiak lortu ahal izateko.

Erronda Kalea, 22
Tel. 944 049 540 / 635 752 315
info@mikelzuazua.com
www.mikelzuazua.com

En el corazón del Casco Viejo, dando color y vida a la calle Ronda, se encuentra la cuarta generación de los Zuazua. Siguiendo la tradición de su bisabuela, Rosario, llenan las huertas y jardines con sus plantas semillas y flores.
Los orígenes radican en el Mercado de la Ribera con Rosario que, convirtiéndose en una de las primeras concesionarias del edificio, vendía en su pequeño puesto las plantas que producía en el caserío del barrio de La Peña. Poco a poco fue prosperando y añadiendo más variedades de semillas, plantas y flores.
Hoy en día en Mikel Zuazua se han adaptado a las nuevas tendencias con todo tipo de productos para huertos, balcones y jardines, manteniendo la tradición de escoger de primera mano los mejores productos en los viveros, para conseguir unos huertos y jardines de calidad.

SOMBREROS GOROSTIAGA

– 1857 –

Fructuoso Gorostiagak eta haren emazteak Gorostiaga kapela-denda sortu zuten 1857an. Fructuosok tailer bat zuen Bidebarrieta kaleko lehenengo solairu batean, izkinan, eta 35 urtez aritu zen han kapelak egiten. Kapela-denda ugari ireki ziren garai hartan. 165 urteko ibilbide honetan, zenbait familiatako zazpi belaunaldiren eskuetatik pasatu da kapela-denda. Zehazki, Gorostiaga familiako hiru belaunaldik eta Pirla familiako lau belaunaldik zuzendu dute denda.

Gaur egun, Emilio Pirlak gobernatzen du saltokia, eroso eta umore onarekin, eta bilbotarren eta mundu guztiko pertsonen buruak janzten jarraitzen du; Asiako herrialdeetako jendea ere badu saltokiko bezeroen artean. Interneti esker, Elosegui Gorostiaga txapelak mundu guztian egin dira ezagun. Bilboko kulturako osagarri klasiko hau kolore guztietan ikusten da hiriko kaleetan, txapelaren kontzeptua modernizatu egin baita.

Viktor Kalea, 9
Tel. 944 161 276
info@sombrerosgorostiaga.com
sombrerosgorostiaga.com

Fructuoso Gorostiaga y su mujer fundaron en 1857 la Sombrerería Gorostiaga. Fructuoso tenía un taller en un primer piso de la calle Bidebarrieta, a la vuelta de la esquina, donde estuvo confeccionando sombreros durante 35 años. En aquellos tiempos las sombrererías fueron floreciendo. Durante 165 años, la sombrerería ha pasado por siete generaciones de distintas familias. Tres generaciones de Gorostiaga y cuatro generaciones de la familia Pirla.

Hoy en día la regenta Emilio Pirla que, con desparpajo y buen humor, sigue vistiendo las cabezas de la población bilbaina y de personas de todo el mundo, incluso de países asiáticos. Gracias al enorme escaparate que es Internet, las populares boinas de Elosegui Gorostiaga se han hecho famosas a lo ancho y largo del mundo. Este clásico de la cultura bilbaina se lucen por nuestras calles en todos los colores y han modernizado el clásico concepto de la txapela.



TURRONERÍA HELADERÍA ADELIA IVÁÑEZ

– 1850 –

Adelia Iváñez turroi-denda Posta kaleko 12. zenbakian dago 1850etik. Saltegi ospetsu honen jatorria Miguel Galianak egindako bidaia bat izan zen, Alacantetik, Xixonatik, abiatu baitzen Gabonetako produktuak saltzera. Hala, Bilbora iritsi eta saltegia sortu zuen. Haren suhiak, Eladio Iváñez Colomak, bultzada eman zion turroi-saltegiari, eta kooperatiba bat sortu zuen ekoizpena errazte aldera eta marka propioa izateko.
1960ko hamarkadan, haren seme-alabek, Adeliak eta Eladiok, hartu zuten negozioa. 1983ko uholdeek eragindako kalteen ondorioz, establezimendua berriztatu behar izan zuten, eta lehenengo solairuko biltegia saltoki gisa erabiltzea erabaki zuten.
2005ean, Ivánen gidaritzapean (bosgarren belaunaldia), berriro itzuli ziren kalera. Beren produktuen kalitateagatik dira ezagunak; haien artean, Xixona turroia, almendrazko polboroiak eta turroi-izozkiak nabarmentzen dira.

Posta Kalea, 12
Tel. 944 169 326
pedidos@adeliaivanez.com
adeliaivanez.com

Desde 1850 la Turronería Adelia Iváñez se sitúa en el número 12 de la calle Correo. Los inicios de este emblemático negocio se dieron cuando Miguel Galiana emprendió un viaje desde Xixona, Alicante, para comercializar productos típicos por Navidad. Así, llegó a Bilbao y fundó su negocio. Su yerno, Eladio Iváñez Coloma, impulsó la turronería y creó una cooperativa para facilitar la producción y tener su marca propia.
En la década de los 60, sus hijos Adelia y Eladio cogieron el relevo. Con las inundaciones de 1983, tuvieron que reformar el establecimiento y decidieron utilizar el antiguo almacén del primer piso como local de venta al público.
En 2005, con Iván al frente de la tienda, la quinta generación, volvieron a trabajar a pie de calle. Reconocidos por su calidad, destacan por el turrón de jijona, los polvorones de almendra y los helados de turrón.

TURRONERÍA IVAÑEZ

– 1855 –

Dagoeneko Ivañez familiako bost belaunaldik egin dute Gabonetan Xixona eta Bilbo lotzen dituen bidea. Celina eta Eladio Ivañez neba-arrebek gobernatzen dute Ivañez turroi-denda, Posta kaleko 23. zenbakian, Done Jakue katedralaren atzean.

Ivañez familiaren historia XIX. mendearen bigarren erdialdean hasi zen, eta hiriko merkataritzarekin eta Gabonekin lotu izan da beti; zehazki, Zazpikaleetan, han hasi baitzen tradizio hori 1855ean. Gaur egungo kokapenaren aurretik, Bidebarrieta kaleko 7.ean eta Posta kaleko 12.ean kokatu zen denda.

Xixonako turroi klasikoak dira Celina eta Eladio neba-arreben espezialitatea: Eladio Ivañez Coloma aitonaren formulak erabiliz egiten dituzte turroi eta gozoak, eta bilbotarren gustura egokitutako turroi paregabe bat lortzen dute.

Posta Kalea, 23
Tel. 944 792 407 / 696 662 691
pedidos@turroneriaivanezbilbao.com
www.turroneriaivanezbilbao.com

Ya son cinco las generaciones de la familia Ivañez que Navidad tras Navidad han recorrido el camino que une Jijona y Bilbao. Los hermanos Celina y Eladio Ivañez regentan la Turronería Ivañez, en Correo 23, detrás de la catedral de Santiago.

La historia de la Familia Ivañez comenzó en la segunda mitad del siglo XIX y siempre ha estado vinculada al Comercio y a la Navidad en la Villa, concretamente en su Casco Viejo donde desde 1855 se inició esta tradición. Bidebarrieta 7 y Correo 12 fueron las ubicaciones previas a la actual Turronería.

Especializados en turrones clásicos originarios de Jijona, Celina y Eladio continúan elaborando sus turrones y dulces con las fórmulas originales de su abuelo, Eladio Ivañez Coloma, obteniendo como resultado un turrón único adaptado al gusto de los bilbainos.

ULTRAMARINOS GALINDEZ

– 1922 –

Duela hiru belaunaldi ireki zen Galíndez janari-denda Barrenkalen. Hasieran taberna izan zen, baina Gerra Zibilaren aurretik janari-denda bihurtu zen. Ramón de Galíndez Aranak eta Telesfora Gutiérrezek ireki zuten negozioa 1922 inguruan. Ordudanik, toki berean egon da lokala, betiko esentziari eutsita. Upelgileen kalea izan zen antzina, gero fruta-denden kalea, eta geroago hutsik geratu zen, baina 80ko hamarkadan aisialdiko gune bilakatu zen.
Lokal txiki eta erosoa dute, eta betiko produktuak eskaintzen dituzte; besteak beste, Nafarroako zainzuri, piper eta barazkiak, Bermeoko hegaluzea eta Salamancako hestebeteak. Likoreetan ere adituak dira, eta haien aukera zabal bat dute.
Eskaintzen duten zerbitzua eta produktu tradizionalen kalitate ona dituzte bereizgarri, eta bezeroen fideltasuna irabazi dute.

Barrenkale, 29
Tel. 944 155 020

Hace tres generaciones comenzó Ultramarinos Galíndez en la calle Barrenkale. En sus orígenes fue un bar, pero antes de la Guerra Civil se convirtió en ultramarinos. Aproximadamente en 1922, Ramón de Galíndez Arana y Telesfora Gutiérrez abrieron el negocio. Desde entonces, siempre han estado en el mismo local, manteniendo su esencia tradicional. Esta antigua calle de cuberos, convertida más tarde en calle de fruterías, quedó vacía hasta los años 80, cuando comenzó a ser una zona de ocio.
En su pequeño y acogedor local hay productos de los de toda la vida, como los famosos espárragos, pimientos y verduras de Navarra, el bonito de Bermeo, o los embutidos de Salamanca, entre muchos otros. También, son especialistas en licores, de los que tienen un amplio surtido.
El servicio que ofrecen y la gran calidad de sus productos tradicionales, los diferencian y han generado una fiel clientela.

ULTRAMARINOS GREGORIO MARTÍN

– 1931 –

Artekaleko 22. zenbakian eta bakailao gazitua fatxadan jarrita hasi zen Gregorio Martín janari-dendaren historia. 1931n hasi zen guztia, orduan erabaki baitzuen Gregoriok denda irekitzea. Familiako hirugarren belaunaldiko Luis Arbiolek kontatzen duenez, bakailaoa izan da negozioaren oinarria beti, gerran fruta-denda bilakatu behar izan bazuen ere. Gerra bukatu zenean, negozioa bakailaoan oinarritu zen berriro, eta ordudanik bera da estable-zimenduko produktu izarra. Gaur egun, bakailaoaz gainera (gazitua, gatzgabetua, enkarguz kozinatua…), lekale, kontserba eta jangai ugari ere eskaintzen dituzte.

Lokalak ia 100 urteko historia du, eta oraindik ere Luisen osaba zaharrak ireki zueneko zorua eta habeak mantentzen ditu. Bilbotarrek ilara luzeak egiten jarraitzen dute Gabonetan, euskal gastronomiako produktu izarretako bat dastatzeko.

Artekale, 22
Tel. 944 153 707
luis@gregoriomartin.es
www.gregoriomartin.es

En el número 22 de Artekale y con la bacalada en la fachada, comienza la historia de Ultramarinos Gregorio Martín. Todo se remonta a 1931, cuando Gregorio decidió abrir la tienda de alimentación. Tal y como cuenta Luis Arbiol, tercera generación de la familia, el bacalao siempre ha sido la esencia del negocio, a pesar de que durante la guerra se tuviese que transformar en frutería. Al término de la guerra, el negocio volvió a sus orígenes, siendo desde entonces el bacalao su producto estrella. Actualmente, además, de vender el bacalao de diversas maneras (salado, desalado, cocinado por encargo...), disponen de una amplia gama de legumbres, conservas y ultramarinos.

Con casi 100 años de historia, en el local se puede seguir contemplando el suelo y las vigas originales con las que el tío abuelo de Luis comenzó el negocio. Un lugar en el que los bilbainos y las bilbainas siguen haciendo cola cada Navidad para degustar uno de los productos estrella de la gastronomía vasca.

ESTANCO Nº 13

– 1900 –

1900eko apirilaren 20an, Pedro Rojok Estanco Nº 13 estankoaren titulartasuna lortu eta estankoa ireki zuen, eta, haren ondoan, drogeria bat. Handik urte batzuetara, Isidorok, familiaren ondareari jarraipena emanez, estankoa eskuratu zuen. Geroago, Luisa Aranaren eta José Luisen eskuetara igaro zen, eta, azkenik, gaur egun, laugarren belaunaldiko Mari Carmenek gobernatzen du.
122 urte ditu estankoak, eta oraindik ere jatorrizko zorua, sarrerako atea eta beira-arasa mantentzen ditu. Garai hartan, San Frantzisko kalea zen hiriko gune komertzial nagusia. Urteetan ezaguna izan zen Farias puruak kutxetan saltzen zituelako, eta El Churrasco jatetxe ezagunaren ondoan zegoelako. Lokaleko jatorrizko produktuak mantentzen ditu, eta, tradizioagatik, paper tinbreduna, letrak eta zigiluak saltzen jarraitzen du.

San Frantzisko Kalea, 17
Tel. 944 155 997



El 20 de abril de 1900, Pedro Rojo se hizo con la titularidad y abrió el Estanco Nº13 y, a su lado, una droguería. Unos años después, Isidoro, siguiendo con el legado familiar, se hizo con el estanco. Más tarde pasaría a manos de Luisa Arana y, José Luis, hasta llegar en la actualidad a pertenecer a Mari Carmen, la cuarta generación.
Con sus 122 años de historia, el estanco sigue conservando el suelo, la puerta de entrada y vitrinas de aquel entonces, en el que la calle San Francisco era el principal núcleo comercial de la ciudad. Durante años destacó por la venta de Farias en cajones y por su ubicación próxima al famoso restaurante El Churrasco. Aunque se sigue manteniendo el producto originario del local, por tradición se continúa con la venta de papel timbrado, letras y sellos.

TEJIDOS EL PARAÍSO

– 1920 –

Establezimenduak ehun urtetik gorako historia du, eta Carlosek gobernatzen du, Gorbea familiako hirugarren belaunaldikoak. Carlosen aitaren osabak San Frantzisko kaleko 88.ean hasi zuen negozioa; han, oihalez gainera, botoiak ere saltzen zituzten.
1988an, Carlosen aita jada jabea zela, ondoko lonjara aldatu ziren, eta, negozioaren esentzia mantentzeko, ehun urtetik gora zituen haritz amerikarrezko erakusmahaiaren zati bat eta milaka metro oihal hartu zituzten lehengo lokaletik.
Gaur egun, bezeroei eskaintzen dien tratu onagatik da ezaguna Carlos, eta zinema-zuzendari famatu batzuek harengana jo dute filmetarako jantziak eskatzeko. Estatuko eta atzerriko oihalekin eginak. El Paraíso ehun-dendak ohiko bezeroak mantentzen ditu, eta bezero berriak ere bereganatzen ditu, haren sona ahoz aho zabaltzen baita.

San Frantzisko Kalea, 83
Tel. 944 222 582
cjrivacoba@gmail.com

Este comercio, con más de cien años de historia, está regentado por Carlos, la tercera generación de la familia Gorbea. El tío del padre de Carlos comenzó el negocio en el número 88 de la calle San Francisco, donde, además de telas, vendían botones.
En 1988, ya con el padre de Carlos como dueño, se mudaron a la lonja contigua y, para mantener la esencia del negocio, se llevaron parte del mostrador de roble americano con más de cien años de historia y miles de metros de telas.
Actualmente, Carlos es conocido por su buen trato y famosos directores de cine han acudido a él para bordar los trajes con su inmensa variedad de telas estatales y extranjeras. Tejidos El Paraíso sigue manteniendo su clientela habitual que aumenta día a día gracias al boca a boca.

B
Bilbao

DEUSTU / ERREKALDE / URIBARRI



55/ ESTANCO DE **LA CASILLA** **56/** CERRAJERÍA **SOMERA** **57/** FARMACIA **PONT** **58/** PESCADERÍA **MARISA** **59/** FLORISTERÍA **REMENTERÍA**

100 EHUN BILBAO 100

BETIKO DENDAK BETIRAKO
COMERCIOS DE TODA LA VIDA Y PARA TODA LA VIDA

ESTANCO DE LA CASILLA

– 1921 –

Yosune Ortegaren aitonak hasi zuen negozioa 1921ean Etxetxua plazan. Ume-umetatik estankoko erakusmahaiaren eta tabernako barraren atzetik bizi izan dituen milaka historia ditu gogoan Yosunek. Gaur egun, Bilboko plaza dantzazaleeneko estanko bat da. Familia-negozio hau aldatuz joan da ehun urtetik gorako historian zehar.
Jabeak gogoan du nola joaten zen, bere izekoekin batera, tabako-zakuen bila tabako-fabrikara, nola saltzen zuten paper tinbreduna, nola prestatzen zituzten puruen eraztunak… eta, noski, Etxetxuko dantzak ikusten zituzten igandero. Ohiturak aldatu egin dira, baina estankoak eta dantzek bere horretan jarraitzen dute; inork ere ez du nahi ohitura horiek galtzerik.

Etxetxua Plaza, 9
Tel. 944 444 863
expendeduria103@hotmail.es

El abuelo de Yosune Ortega inició el negoció en 1921 en la plaza de La Casilla. Yosune recuerda millones de historias que, desde muy niña, ha vivido detrás del mostrador del estanco y la barra del bar. Actualmente, es únicamente un estanco ubicado en la plaza más bailona de Bilbao. Un negocio familiar que ha ido cambiando durante sus más de cien años de historia.
Recuerda la propietaria los años en los que iba personalmente, junto con sus tías, a por las sacas de tabaco a la tabacalera, vendían papel timbrado, preparaban las vitolas de los puros... y, por supuesto, veían cada domingo los bailes de La Casilla. A pesar de que las costumbres han cambiado, el estanco y los bailes se siguen manteniendo, tradiciones que no se quieren perder.

CERRAJERÍA SOMERA

– 1917 –

Familia-enpresa hau Bizkaiko konpainia nagusietako bat da, 1917tik, sarrailagintzaren eta errementaritzaren sektoreetan. Goienkale kalean sortu zuten, artean han animaliak ferratzen zirenean; urteen buruan toki gehiagotan jarri zituzten establezimenduak, eta bederatzi sarraila-denda eta errementaldegi bat izatera iritsi ziren.
Somera sarraila-dendak, bere esperientzia zabalari esker, bezeroen konfiantza irabazi du, eta langileen profesionaltasunagatik eta saltzen dituen produktuen kalitate handiagatik eta segurtasunagatik nabarmentzen da: sarraila-zilindroak, eskutokiak, postontziak, sarrailak, seinaleztapenak, itxiturak, burdin hesiak, pertsianak...
Tarifa finko bat eta programa propio bat dituzte; hala, etxeetara zerbitzuak egitera joaten diren ofizialek unean bertan egiten dute faktura. Hainbat motatako sarrailak irekitzen eta segurtasun-maila handiko sistemak instalatzen espezializatutako profesionalak dituzte, eta errementaritzako lanak egiten dituzte, bai etxebizitzetan, bai obretan. Horrez gainera, bezeroarentzako arreta-zerbitzua dute urteko 365 egunetako 24 orduetan.

Campo Volantín Pasealekua, 7
Tel. 944 102 303
admin@cerrajeriasomera.com
www.cerrajeriasomera.com

Esta empresa familiar está consolidada desde 1917 como una de las principales compañías de Bizkaia en los sectores de cerrajería y herrería. Fue fundada en la calle Somera, cuando aún se herraba allí a los animales y a lo largo de los años amplió sus ubicaciones, llegando a nueve puntos de venta de cerrajería y un taller de herrería.
Cerrajería Somera, avalada por años de experiencia y la confianza de sus clientes, destaca por la profesionalidad de su personal y la alta calidad y seguridad de sus productos como bombillos, manillería, buzones, cerraduras, señalización, cerramientos, rejas, persianas...
Cuentan con una tarifa fija y programa propio con el que los oficiales que acuden a realizar servicios a domicilio entregan la factura al momento. Disponen de profesionales especializados en distintos tipos de aperturas e instalación de sistemas de alta seguridad para todo tipo de puertas, también realizan trabajos de herrería tanto en domicilio como en obras. Asimismo, ofrecen un servicio de atención al cliente las 24 horas de día, los 365 días del año.

Beste kokapen batzuk // Otras ubicaciones: María Díaz de Haro, 18 // Iparraguirre, 67 // Lehendakari Aguirre, 11 // Somera, 16 (lonja derecha) Santutxu, 35 // Karmelo, 5 // Autonomia, 54

FARMACIA PONT

– 1924 –

otikari buruz duten liburuan azaltzen denez, Pont botikak 100 urte inguru daramatza auzokoak zaintzen eta aholku ematen. Botika 1924eko hamarkadan sortu zen, eta erreferente bat da sektorean. 1975etik Tiboli kaleko 14.ean dago, funikularretik gertu. Gaur egun, familiako hirugarren belaunaldiak gobernatzen du botika, eta, diotenez, gutxienez beste belaunaldi batez ere jarraituko dute.
Kalitate handieneko produktuak dituzte establezimenduan, eta arreta pertsonalizatua eskaintzen diete bezeroei. Altzariak eta establezimendua bera berriztatzen joan dira denborak aurrera egin ahala. Establezimendua estilo modernokoa da, baina zain zuriko marmol beltzaren eta zuraren konbinazioak nortasun propio eta bereizgarria ematen dio.

Anselma de Salces Kalea, 19
(Tiboli kalea, 12)
Tel. 944 451 345
farmapontgoiricelaya@gmail.com

Tal y como se cuenta en las páginas de su libro, la Farmacia Pont lleva cerca de 100 años cuidando y asesorando al barrio. La botica que inició su camino en la década de 1924 se ha convertido en una farmacia de referencia. Desde 1975 sigue en la calle Tívoli, 14, muy cerca del funicular. Actualmente, a cargo de la farmacia se encuentra la tercera generación que asegura que continuará por lo menos una generación más.
Este establecimiento cuenta con una gran variedad de productos de máxima calidad y ofrece una atención personalizada a su clientela. Tanto el mobiliario como el establecimiento han ido renovándose con el paso del tiempo. A pesar de su carácter moderno, la combinación de madera con el mármol negro de vetas blancas da al establecimiento una personalidad propia y diferenciada.

PESCADERÍA MARISA

– 1924 –

Castaños auzoan, funikularretik gertu eta Bilboko udaletxetik bi kaleko tartera dago Marisa arrandegia. Lonja berean dago duela ehun urtetik, kalitate oneneko produktu hautatuak saltzen.
Gaur egun, familiako hirugarren belaunaldiak zuzentzen du arrandegia, eta, beren arbasoen moduan, mota guztietako eta egunean bertan hautatutako arrain eta itsaskiak eskaintzen dizkiete auzoko biztanleei.
Establezimendu berezi honek estilo tradizionalarekin jarraitu du gaur egun arte, eta konfiantzazko tokia da hango bezeroentzat, profesionaltasunez eta tratu bikainarekin artatzen baitituzte. Produktu bikainak gomendatzen dituzte, zerbitzu onena eskaintzen dute kalitate-kontrol zorrotzei esker, eta azken belaunaldiko instalazio klimatizatuak dituzte.

Castaños Kalea, 10
Tel. 626 892 590
laurajaureguibeitia@gmail.com

En el barrio Castaños, muy cerca del funicular y a dos calles del Ayuntamiento de Bilbao, se sitúa Pescadería Marisa. Desde hace cien años están en la misma lonja, donde venden productos seleccionados y de primera calidad.
En la actualidad, está regentada por la tercera generación que, como sus antepasados, siguen sirviendo y abasteciendo al barrio bilbaino de una gran variedad de pescado y marisco, elegido y repuesto día a día.
Este establecimiento singular llega hasta nuestros días de forma tradicional, siendo un lugar de confianza para su clientela, a la que atienden con gran profesionalidad y trato excepcional. Recomiendan los productos más destacados y prestan el mejor servicio mediante unos controles de calidad rigurosos y unas instalaciones climatizadas de última generación.



FLORISTERÍA REMENTERÍA

– 1915 –

Rementeria abizena ezaguna da Deustun duela hiru mende inguru. Pantaleón Rementeriaren txakolina ezaguna zen Ibarrekolandan, eta egungo jabearen aititari, Pantaleón Rementeria Larrazabali, anai-arrebetan zaharrena izateagatik, txakolina egiten zuen aitonaren izena jarri zioten.
Baratzezaintza eta lorezaintza ikasi zuen Frantzian 1900eko hamarkadaren hasieran, eta garai hartako pertsona ospetsuekin batera ibili zen Parisen. 1915 eta 1917 bitartean hasi zen lanean. Rementeria loradendaren erreferentzia zaharrena 1917koa da; hain zuzen, Santurtziko kioskoko parkeko lorategietako obren esleipena.
Udalentzat egiten zuen lan batez ere, eta Bilboko Udalaren hornitzailea izan zen urteetan. Gerra Zibilean, lehergailu bat erori zen negutegietako ikatz-galdaretan, eta gordeak zituzten fitxategi guztiak galdu ziren.
Gaur egun, familia-negozio honetako hirugarren belaunaldiak jarraitzen du apaindurazko baratzezaintzaz eta loreez arduratzen. Lantalde profesional bat eta kalitate handiko lore-produktuak dituzte; lore eta landare naturaletan espezializatuta daude, eta ibilbide eta esperientzia zabalaren bermea dute.

Agirre Lehendakariaren Etorb., 18
Tel. 944 754 278 / 644 754 278
floristeriarementeria@gmail.com
floristeriarementeria.com

El apellido Rementeria lleva afincado en Deusto alrededor de tres siglos. Fue conocido el txakoli de Pantaleón Rementeria en Ibarrekolanda y al aitite del actual dueño, Pantaleón Rementeria Larrazabal, por ser el mayor, le llamaron como a su abuelo el del txakoli.
Estudió horticultura y jardinería en Francia a principios de 1900 y se codeó en París con personajes famosos de la época. Comenzó a trabajar entre 1915 y 1917. La referencia más antigua de Floristería Rementeria es la adjudicación de las obras de los jardines del Parque del Kiosco, en Santurtzi, en enero de 1917.
Trabajaba sobre todo para ayuntamientos, siendo proveedor del Ayuntamiento de Bilbao durante años. En la Guerra Civil cayó una bomba en la caldera de carbón de los invernaderos y se perdieron los archivos conservados hasta entonces.
Ahora la tercera generación de este negocio familiar es quien sigue dedicándose a la horticultura ornamental y floristería. Cuentan con un equipo profesional y productos florales de alta calidad, están especializados en la flor y planta natural y les avala su dilatada trayectoria y experiencia.



BETIKO DENDAK
BETIRAKO
100
EHUN BILBAO
100
COMERCIOS DE TODA LA VIDA
Y PARA TODA LA VIDA

B
Bilbao

ZUBIRI ULTRAMARINOS **GREGORIO MARTÍN** ULTRAMARINOS **GALINDEZ** TURRONERÍA **IVAÑEZ** TURRONERÍA HELADERÍA **ADELIA IVÁÑEZ** TEJIDOS **EL PARAÍSO** SOMBREROS **GOROSTIAGA** SASTRERÍA **CARDENAL** PLANTAS, SEMILLAS Y FLORES **MIKEL ZUAZUA** PESCADERÍAS **VASCAS** PESCADERÍA **MARISA PEDRO SALCEDO** PASTELERÍAS **MARTINA DE ZURICALDAY BILBAO** PASTELERÍA **ARRESE 1852 GOZOTEGIA MELTXORA** MÁQUINAS DE COSER **ALFA BILBAO** LOTERÍA **LA CRUZ** LOTERÍA **CARRERA** LOTERÍA **AZCARRETA LOS ENCAJEROS** LIBRERÍA **CÁMARA LA BELGA** JOYERÍA **URALDE** JOYERÍA RELOJERÍA **MANOLO** JOYERÍA **IGNACIO ÁLVAREZ** JOYERÍA **FERNANDO MONGE 1891** HELADERÍA **NOSSI-BÉ GUANTE VARADÉ** FLORISTERÍA **REMENTERIA** FERRETERÍA **LA BOLSA** FARMACIA **ZABALLA** FARMACIA **VÍCTOR LLORENTE** FARMACIA **URIARTE** FARMACIA **PONT** FARMACIA **EGUIRAUN** FARMACIA **DIEGO AGUIRREZABALA** FARMACIA **COLÓN** ESTANCO **Nº 13** ESTANCO DE **LA CASILLA** ESTANCO DE **BIDEBARRIETA** ESTANCO **ASPIZUA EXPENDEDURÍA 17** ESTANCO **ALIS EL EQUIPO DE VIAJES EL ARRATIANO** DROGUERÍA-PERFUMERÍA **JUAN TORRE** DELICATESSEN **LÓPEZ OLEAGA** CUCHILLERÍA **LA TIJERA** CUCHILLERIA **INCHAUSTEGUI** CRISTALERÍA **LANDA** CHARCUTERÍA ALEMANA **HERMANN THATE** CESTERÍA **ALONSO** CERRAJERÍA **SOMERA CASA RUFO** CAMISERÍA **MUÑOZ** CALZADOS **ZULUETA** CALZADOS **OTAZUA** CALZADOS **BIZKARGUENAGA ANTONIO MARTÍNEZ** ALIMENTACIÓN **LARRINOA**

100 EHUN BILBAO